

# 77

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2012ko uztaila



## ELKARRIZKETA

**Ramon Saizarbitoria:**  
*‘Orain bai, nobela bat  
egingo nukeela uste dut’*

## ERREPORTAJEA

**Norenak dira Eliza Katolikoak  
erabiltzen dituen higiezinak?**  
*Eztabaida handia piztu  
da Nafarroan Elizaren  
ondarearen inguruan*

## EZTABAIDA

**Euskara salbuesteko  
dekretua, hizkuntza  
normalizazioaren  
seinale?**

Euskaraz ikasi duten ikasleak hizkuntza horren ezagutza bermatzeko agiriak aurkezteaz salbuesita egongo dira hemendik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan. Eusko Jaurlaritzak onartu berri du horri bidea ematen dion dekretua. Hainbat iritzi jaso dugu dekretuak euskararen normalizazioan izango duen eraginari buruz.

# IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO




## HITZEZ HITZ

**Estrategien garaia**  
PELLO ESNAL




## GIZA BALIABIDEAK

**Javier Tirapu:** ‘Garunarentzat  
eraginkorrago duzu oinez  
ibiltzea sudokuak egitea baino’



SINETXI GENVEN IPVINA...



...AZERIAK JANDIO LEPOA... (Aspaldiko kantu zaharra)

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:**  
Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**  
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Julen Arexolaleiba, Jon Arizkun, Urtzi Barreneetxea, Begoña Durruty, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Pello Esnal, Irati Goikoetxea, Edurne Gonzalez, Inaxio Lopez de Arana, Luma, Rakel Olea, Patxi Petrirena, Nerea Pikabea, Joseba Uskola, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berriatutako daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563  
Legezko Gordailua: BI-1141-93

**Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea  
Donostia-San Sebastián 1,  
01010 VITORIA-GASTEIZ.  
Tel. 945 01 76 37  
[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)


## Aurkibidea

- 2 **Marraskia**  
Begoña Durruty
- 4 **Pasadizoak**  
Agurrak (3)
- 5 **Pertsonaia**  
Eva Caballero
- 6 **DUDANET**
- 7 **Elkarrizketa**  
Ramon Saizarbitoria
- 12 **Eztabaida**  
Euskara salbuesteko dekretua, hizkuntza normalizazioaren seinale?
- 17 **Gramatika**  
Ze, zer, zein  
  
[ARIKETAK]
- 19 **Leihatila**  
NORBAIT. ETA KITO  
Irati Goikoetxea
- 20 **Informazio eta komunikazioaren teknologiak**  
Enpresen #sarekohizkuntzak
- 22 **Erreportajea**  
Norenak dira Eliza Katolikoak erabiltzen dituen higiezinak?
- 26 **Normalizazioa**  
Euskaldunen arlo pertsonal eta intimoa: euskaldunon hizkuntza komunitatea
- 28 **Hitzez hitz**  
Estrategien garaia
- 30 **Leihatila**  
GUTUN-AZALAK  
Inaxio Lopez de Arana
- 31 **Giza baliabideak**  
Javier Tirapu Ustarroz:  
“Garunarentzat eraginkorrago duzu oinez ibiltzea sudokuak egitea baino”
- 34 **Denbora-pasak**

## JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa

[interinez@mindless.com](mailto:interinez@mindless.com)



# Agurrak (3)

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

**H**au ere gure lagun batek kon-  
tatua dugu. Andre batek, giza-  
kiaren aztarna bila lurpean ara-  
katzen aditua zen ospe handiko jakintsu  
batekin topo egin eta andralegez agurtu  
omen zuen:

–Zer moduz, don Teodoro\* (\*izen hau  
benetakoaren ordezkoa da)

–Zuri ze inporta zaizu? Hori da jendea-  
rekin sartu beharra! Bakean dagoena  
bakean utzi ezin ala?

Gizonari patxada endredatu!

Normalean, hala ere, ez dira horrelako  
erantzunik jasotzen. Eskerrak! Men-  
di bueltan gabiltzaneko kaixo, eup eta  
ieupak atseginagoak eta alaiagoak dira.  
Nik, behintzat, hala sentitzen dut. Eta  
pasadizo politikak direla uste dut honako  
hauek:

Igande goiz batean bagindoazen lagun  
bat eta biok, eskuan makila genuela,  
ibilalditxoa egitera. Bidean, guganantz  
aurretik beste hiru gizonetzko zetozen.  
Lagunak esan zidan, lehen, ez aspaldi,  
horrelakotan erronkak eta borrokkak ere  
izaten zirela, batzuek sesioa nahitaezkoa  
zutela. Elkarrengandik bost bat metrora  
geundela haietako batek bota zigun:

–Gura dozue lepotik beherako makilaka-  
da bana?

Barrez hasi ginen bostok. Haiek ere gure  
autu bera izan zuten nonbait ere euren  
artean.

Beste behin, autoan nindoala, edadeko  
baserritar ezagun bat ikusi nuen kamino  
ertzetik hurbil, zelaian. Gelditu eta esan  
nion:

–Ze, Patxi, ondo?

–Ez!

–Ez?

–Ez!

Primeran zegoen Patxi. Nik besoarekin  
agur egin nion; berak ere bai niri, biok  
irribarrez.

Goizean goiz baserriz baserri esnea ba-  
tzen ere lagundu izan nion behin edo  
behin Joxe Luixi. Gaztea eta adarjotzai-  
lea zen. Baserritar zaharrekin berriketa-  
saltsan ziria sartzen hasten zitzairenean,  
“joadi, joadi!” esaten zioten irribarrez.  
Kamioi txikia martxan jarri eta Joxe Luix  
baserritar haien kontuak kontatzen eta  
ni entzuten alde egiten genuen.

Oso gustura entzuten diot Bizkaiko he-  
rri batera joaten naizenetan lagun batek  
aldian-aldian egiten didan harrerakoa:  
“Kiputxen bat edo?”. Eta semea eta biok  
bagoaz: “Gizonen batzuk edo?”. Semea  
bizkaitarra dut-eta...

Eta 4-5 urteko mutikoarena: aitari esku-  
tik eutsita zihoala aitak adiskide batekin  
topo egin, berriketan jardun eta agurrean  
“gero arte” esan, eta mutikoak aitari:  
“Gero ere gizon horrekin egon behar al  
dugu ba?”.

Grazia egin zidan, batean, aspaldi sama-  
rrean ikusi gabeko lagunzahar batekin  
topo egin, geure gorabeherak elkarri  
kontatu eta agurtzerakoan gutxienez  
lautan esan zidanean: “Pozten nauk ba;  
benetan poztu ere, hi ikusita”. Hurrengo  
egunean koadrilako bati –ez dut azal-  
duko ez nor ez nolakoa den, baina bai  
esango Europako hamar egoskorrenen  
artekoa dela–, ba hura ikusi nuenean,  
galdetu nion:

–Joxe, ni ikusita poztu al haiz?

Ez zuen espero horrelakorik, ez horixe!  
Erantzunik gabe begira-begira geratu  
zitzaidan. Taldeko beste lagunek barre  
egin zuten.

Lagunarte lasaiko agurrak, jokabide  
adeitsukoak. Ez ziren, ez, horrelakoak,  
heriotzara zihoazen gladiadoreen “Ave,  
Caesar, morituri te salutant” haiek. Ez  
zuten barru gozoarekin esango. Zori  
hartan gladiadore haiek beste zerbait ere  
esango zieten, bada, enperadore anker  
haieil.. Baina “Hay Hitler”-ik eta “Pa-co,  
Pa-co”-rik ez dugu behar oraingoan.

Sarrerako agurraren eta alde egitekoaren  
bitartean beste esamolde piloa erabiltzen  
dugu konturatu gabe.

–“On egin!”. –“Eskerrik asko”.

–“Hau neskatila polita. Tori karamelutxo  
bat”. Neskatilak, lotsor, karamelua hartu  
eta isilik geratzen bada, aitak edo amak:

–“Zer esaten da? Esan eskerrik asko”. Eta  
haurrak: –“Eskerrik asko”.

Eskerrak ematen ere erakutsi egin be-  
har zaie-eta, bestela ez dute ikasten. Ez,  
ez dute ikasten. Eta “ez horregatik”, “ez  
dago zergatik” eta...

Esker ona adierazteko modurik onena ez  
da, baina bai ezer ez baino hobea. Etxe-  
koandrea saiatu da oilaskoa saltsan pres-  
tatzen eta ederra prestatu du. Platerak  
garbi geratu arren, mahaiko inortxok ez  
dio ezer esan, eta, bada, emakumea au-  
rreratu zaie:

–Goxoa al zegoen oilaskoa?

–Platerera begiratu.

Horrelakoak ere bagara eta... ■

# EVA CABALLERO,

## IRRATI ESATARIA:

# ‘Ahalik eta hizkera argiena erabiltzean dago sekretua’

NEREA PIKABEA  
KAZETARIA

**E**skarmentu handia du irratigintzan, hamar urte egin baitzituen SER irrartian eta beste horrenbeste baitaramatza Radio Euskadin. *La mecánica del caracol* izeneko irratsaioa egiten du egunero Radio Euskadin. Zientzia, teknologia eta historiari lotutako gaiak lantzen ditu. Entzuleak entretenitzea eta jakintza zabaltzea dira saioaren ardatzak. Ahots atseginez eta hizkera erraza erabilia, zientziaren mundura hurbiltzen gaitu egunero esatari bilbotarrak.

**Irratian zientzia gaiez hitz egitea ez da lan erraza. Nola kontatzen dituzu albisteak entzuleak uler ditzan?**

Nire gonbidatuetako batzuek zalantza izaten dute euren ezagutzaren berri ematerakoan, uste baitute entzuleek ez dietela esandakoa ulertuko. Jorratzen ditugun gaiekin zerikusia duten entzule asko du

saioak. Lengoaia teknikoan ez galtzeko eskatzen diet gonbidatuei. Ahalik eta hizkera argiena erabiltzean dago sekretua.

**Zientzialariek kritikatu izan dute komunikabideek ez dituztela behar bezala ematen zientzia albisteak.**

Prensa idatzian egin dizkieten elkarrizketekin oso haserre dauden zientzialariak elkarrizketatu ditut nire saioan, esandakoa desitxuratu egin zietelako, antza. Oso zaila da irrartian horrelako zerbait gertatzea, zientzialariek eurek ematen baitituzte azalpenak. Oro har, ez dago zientzia gaietan espezializatzen den kazetaririk.

**Irratia eta telebista Internetez emateko erronka jarri dio bere buruari EITBk. Sumatu al duzue Interneten eragina?**

Uste dut irrartiaren etorkizunaren zati bat programa espezializatuak egitea izango dela, eta entzuleek irratia betiko moduan entzuteaz gain, Internetez ere entzungo dutela. Guk gure saioak osorik jartzen ditugu eta gure entzule batzuk Interneten deskargatzen dute saioa, gero edonon entzuteko.

**Zer irizpideren arabera hautatzen dituzue gaiak?**

Gaurkotasanak eskatzen duenaren arabera aukeratzen ditugu: zentro teknologikoei, unibertsitateei, ikerketa zentroei bidaltzen dituzten prentsa oharrak eta liburuen argitalpenak erabiltzen ditugu. Entzuleen galderak ere erantzuten ditugu eta guri edo gure lankideei buruz jorratzen zaizkien gaiak ere lantzen ditugu.



**Zer eratako gaiek dute arrakasta handiena?**

Historia, genetika, giza-paleontologia, gizakiaren eboluzioa edota biologia gaiak asko gustatzen zaizkie entzuleei, mundua hobeto ulertzen laguntzen baitute. Gakoa ez dago horrenbeste gaietan, baizik eta kontatzeko moduan eta eguneroko bizimoduarekin egiten duzun loturan.

**Zientzia gaiei buruz komunikabideetan ematen den informazioa nahikoa al da?**

Oso gutxi ematen da. Irratiko albistegietan ia inoiz ez da tokirik izaten gai horiek jorratzeko; politika eta ekonomia gaiek jaten dute tarte guztia. Orduan, informazio mota hori jasotzen ez duen jendeak ez du eskatzen, ez baita gaiarekin lotura izatera ere iritsi. Baina, ezagutza mota horrek egiten du gizartea kritikago, arduratsuago, helduago, kontzientziatuago. Hedabideok badugu erantzukizunaren parte bat. ■

## DUDANET lineako kontsulta-zerbitzua

Hemen dituzu IVAPeko DUDANET kontsulta-zerbitzuan erantzundako zenbait zalantza:

### GALDERA

Zein da era egokia, gorputzaren aparatua idazteko orduan?: marra erabili-ta, edo marrarik gabe (arnas-aparatua, zirkulazio-aparatua... edo arnas aparatua, zirkulazio aparatua...).

Erabiltzen ditugun testuliburuetan, denetatik azaltzen da.

### ERANTZUNA

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batu Oinarri-dunean*, *aparatu* hitza modu bietara agertzen da hitz elkartuetan. Gauzak horrela, biak dira zuzenak.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Ikasmaterialen Aholku Batzordeak argitaratutako *Ortotipografia* lanaren eranskinean, egi-leak zehazten duenez:

“Euskaltzaindiak marratxo nahiz bereiz idazteko aukera emana duen *hitz elkartuak marratxo idaztea hobesten eta gomendatzen da ikasmaterialetan*. Eskola-liburuen eta irakaslanaren nondik norakoa kontuan izanik, motibo sendoak daude bide jakin hori hobesteko”.

### Informazio osagarria:

- ZUBIMENDI, Joxe Ramon. *Ortotipografia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004. (66. or.).
- [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dih/es\\_5490/adjuntos/estilo\\_liburua/ortotipografia.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf)

### GALDERA

Ondo al dago “bilduta gaude”, edo erdarakada bat al da? egokiago litzateke “bileran gaude” adibidez?

### ERANTZUNA

Honako erantzun hau eman zion Euskaltzaindiak, JAGONET zerbitzuaren bidez, antzeko zalantza bati:

“Euskaltzaindiak ez du ezer erabaki horretaz; baina ‘bilduta egon’ egiturak gaztelaniatzko ‘estar reunido’ esapidearen kalko ustela dirudi eta, beraz, erdarakada nabarmena (non eta ez den esan nahi ‘estar recogido’). Hortaz, ‘bileran egon’ erabiltzea izango dugu egokiena.”

Beraz, *bileran gaude* egokiagoa da.

### GALDERA

“Aipaturiko + izena” erabili beharrean, gero eta sarriago entzuten eta irakurtzen dut “Aipatu + izena”. Zuzenbideko testuetatik denetariko testuetara zabaldu al da? Nondik dator joera hori? Dagoeneko ohitzen hasia naiz, baina hasieran arrotza egiten zitzaidan forma hori. Zuzena bada ere, ez dakit larregi ez ote dugun erabiliko.

Ea ezer argitzen didazuen, aspaldidanik daukadan zalantza da eta.

Mila esker alde zurretik!

Ondo izan.

### ERANTZUNA

Perpau erlatiboak eratzeko hainbat bide daude. Batzuetan, aditza jokatu egiten da:

- Aipatu duzuN izena.

Bestetan, ordea, aditza jokatu gabe erabiltzen da.

- Aipaturiko izena.

Azken bide horretan, Euskaltzaindiak adierazi duenez, hainbat aldaera daude, denak aditzaren partizipio burutuzko formaren gainean eraikita. Gure adibidearen kasuan, *aipaTU*.

Partizipio burutu horri bi atzizki mota eranstean zaizkio, euskalkiaren arabera. Horrela bada:

- Aipaturiko izena.
- Aipaturiko izena.

Iparraldeko euskalkien kasuan, berriz, partizipio burutua bera bakarrik ere ematen da.

- Aipatu izena.

Forma horiek guztiak ontzat eman ditu Euskaltzaindiak. Beraz, aipatzen duzun zuzenbide-esparruko testuetako erabilerari dagokionez, zuzena dela besterik ezin dizugu esan.

### Informazio gehiago:

- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII (Perpau jokatu gabeak)*. Bilbo. Euskaltzaindia (2011) 383-388. or.

Antzeko kontsulta gehiago ikusteko, edo zeure zalantzak argitzeko:

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu>

# RAMON SAIZARBITORIA:

## ‘Orain bai, nobela bat egingo nukeela uste dut’

MIEL A. ELUSTONDO

IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA



1969 an *Egunero hasten delako* argitaratu zuen, eta *Ehun metro* eta *Ene Jesus* 1976an. Handik goiti, euskal literaturaren historiaren orrietan izan da Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944), euskal nobelagintza irauli eta modernizatzeagatik. Ondoren, urte askoan, isilaldia, harik eta 1995ean *Hamaika pauso* publikatu zuen arte. Orain, *Martutene* (Erein, 2012) ekarri du, 700 orriko nobela mardula. Belaunaldi bateko irakurleen kuttun izan zenak ez du estatus hori galdu.

**Hamabi urte igaro dituzu *Martutene* idazten. Zertan da erditze ondoko depresioa?**

Emakume batzuek depresio gogorra izaten dute umea egin ondoren, eta logikoa iruditzen zait. Niri, hainbeste prentsaurreko, elkarrizketa eta gainerakoak, denborarik ez dit eman ezer egin gabe egoteko. Orain arte, lan bat bukatu eta derrepente kentzen nuen burutik. *Martutene* hau, berriz, hor daukat oraindik. Azkena dela iruditzen zait. Jakina, ez ditut beste hamar urte ezer idazteko izango; ez dakit bizitzeko ere izango ditudan. Azkeneko nobela ote den nago, eta, hala ere, inoiz ez bezalako gogoia dut idazteko: oraintxe ikusten dut nire burua idazten hasteko moduan. Zabor asko kendu dut liburu hau idatzita, eta libreago sentitzen naiz.

**Hau kontatu beharra zenuen?**

Beharra, bai. Batzuek ezer esateko ere nobela eraiki beharra daukagu, jolas hori egin, geure burua ordenatzeko besterik ez bada ere. Kontu batzuk argitu ditudala iruditzen zait lan honetan. Hor bada pertsonaia bat, Julia, transmisio gorabehera bizi duena semearekin –aberria, heroi izan nahia eta abarra–, eta emakume horrek arazoari ematen dion soluzioa nik liburu hasieran aurreikusiko nuena ez bada ere, ontzat eman dut, “bai horixe,

ze arraio!” esanda. Nobela honekin kraka asko kendu dut gainera, bai.

**Zure lana argitaraturik, zure isilaldiei begira jarri dira batzuk. Gizon-emakumeen arteko harremanei, beste batzuk. Zure nobeletan ageri den abertzale munduari, halako hauek. Zure esaldi kadentzia luzeko horiei, halako haiek. Gustura jakingo nuke zein duzun zeuk interesik handiena...**

Isilaldiak. Nekez argitaratzen dut. Ez daukat presarik, eta interes handirik ere ez. Nobela buruan izatea da gauzarik pozgarriena niretzat. Buruan nobela bat behar duen pertsona naiz. Horixe da niretzat ederrena. Katua saguarekin jolasean ibiltzen den posturan ibiltzea gusatzen zait, jolasean, sagua akabatu gabe. Nobela idazten ari naizenean, nire inguru naturalean nabilela iruditzen zait. Argitaratzea eta gainerako lanak, aurkezpen ekitaldiak, sari banaketak... hori ez dago nire agendan, ez dago ni hasi nintzen garairako eskeman. Argitaratzea ez da polita eta, beraz, luzatu egiten naiz idazten. *Gorde nazazu lurpean* hartan bezala, haren barruan zenbait lan baziren, eta honako *Martutenen* ere hiru nobelatxo badiara. Hari guztiak nola josi hasten naiz, eta gustura jarduten dut hor. Bukatzeko presarik ez. Hortik datoz isilaldiak, lanean luzatu egiten naiz eta.

### **Gizon-emakumeen arteko harremanak.**

Ez zait iruditzen hori baino gauza interesgarriagorik denik munduan. Norbait ezango balit badagoela beste gai bat nobela bat idazteko, edo berriketarako, erantzungo nioke niretzat ezetz, ez dagoela. Ezintasuna eta gisakoak egozten dizkidate. Beñat Sarasolak, adibidez, poema bat egin du horren inguruan. Tira, uste dut oso harreman normalak eta diskretuak izan ditudala emakumeekin. Gainera, maitatua izan naiz nire bizitzan. Baina erraztasuna daukat harreman horien inguruan jarduteko, konplikatze,

## ‘Ez naiz emakumeagandik oso diferente sentitzen’

jolas egiteko... gustatu egiten zait. Joko hori oso presente dago nire nobelan, bai. Gure giroa, gure historia, gure erroilua, gure kraka... nola ez da, bada, presente egongo gai hori ere!

### **Hori ageri da kazetari eta kritikariaren begietara. Baina, berriro, zein da zure interesa?**

Ez zait oso dotorea iruditzen nor bere nobelaz hitz egitea, lotsa ematen dit... Losintxak ez zaizkit gustatzen, eta erabateko kritikak, kontrakoak, jasotzea ere ez. Beraz, onena, nik nobelaz ez hitz egitea. Baina, hitz egitekotan, nobelako emakume gazte atzerritar horrek Martuteneko ur geldoak nola astintzen dituen, horretaz. Horrekin batera, emakumeen arteko harremanak interesatzen zait. Horren inbidia dut, emakumeen arteko harremanarena: mundu bat da non guk, gizonetzat, ez daukagun sartzetik. Gustura hitz egingo nuke horretaz baten batekin...

### **Gizon-emakumeen arteko harremanak, batetik; emakumeen artekoa, bestetik. Gizonok ez dugu hartan sarreerarik, baina zu sartu zara, hala ere...**

Inguruan ikusia izango da. Bestalde, ez gara hain diferenteak. Gizon topikoa, eta emakume topikoa, ezberdinak dira. Baina ni ez naiz emakumeagandik oso diferente sentitzen. Uste dut ez zaidala askorik kostatzen emakume baten barruan sartzea. Eta, bestalde, zaharra naiz, emakumeekin hitz eginda nago, ezagutzen ditut, badakit emakumeak nola hitz egin dezakeen senarraz, hau parean

ez dagoenean. Senarra gutxiesten duen emakumeak gustua hartzen du hori egiten duenean. Entzun ditut horretan. Tamalez, berandu ikasten da dena. Horixe pena, zein berandu ikasten den dena! Nobelak idazten hasteko moduan sentitzen naiz, orain arte ez bezala. Orain bai, nobelagile naizela esango nuke, nobela bat egingo nukeela uste dut, orain arteko lanak egin ondoren, alegia. Emakumei buruz, berdin esango nuke, uste dut orain prest nagoela emakumearekin enkontru egiteko.

### **Ura joandakoan presa egitea ez da hori?**

*Baleike!* Asko interesatzen zait emakumea, gizonetzat baino gehiago, oro har. Horrek ez du esan nahi gizonetzat guztiak berdinak direnik. Emakumea interesatzen zait, eta bertakoa. Gure belaunaldiak, gaztetan, atzerrikoa izan du emakume kanonikoa. Adibidez, ni jaio nintzen urte berean jaioetako hura, Françoise Hardy. Bide batez esanda, nola kontserbatzen den! Kinta ona gurea, 44koa! Duintasunari eutsi nahi diogu, bukaeraraino! Orain, aldiz, bertako emakumea, euskalduna, interesatzen zait. Emakume heldua... Ginebran deskubritu nuen emakume heldua. Nik hogeitaz urte nituenean, hemen, 40 urteko emakumea zaharra zen, bai janzkeraz, bai ibileraz! Ginebrara joan garai hartan, eta bistan zen 40 urteko emakumea ez zela gaztea, baina haren itxura!

### **Zer diozu estiloaz, paragrafo luzeko esaldiez, esaterako. Hasten zara esaldian, eta ezin punturik jarri, dozena erdi ilara beharago ez bada. Esaldia hasi, koma, perpausa, koma, segi, koma, “zeinetan” bat hemen, eta, halakoren batean, puntua!**

Kar, kar, kar... Kostatzen zait, bai, puntua jartzea. Baina ez dakit, bada, zergatik. Oso nirea da hori, ezin horren kontra borrokatu. Badakit horrek irakurketa zailtzen duela. Zehaztasunak eman beharra daukat, Frantziako Nobela Berria-



ren legean. Hainbeste gustatu zitzaidan *nouveau romana*, itsatsita daramatzat haren keinu asko. Halako danbatekoa izan zen hura, izan ere! Gauzak bere lekuan deskribatu behar larria *nouveau roman*aren ezaugarri izan liteke, eta zeharo neureganatu dut. Hizkuntzalari batek, lexikologoak beharbada, nik idatzi dudana irakurri eta esango luke zer edo zer. “Jar ezak halako hitza eta kito!”, adibidez. “Gauzak”.

“Gauzak”... “Gauzak” dira, halaber, euskaldunen mundua, abertzaleak, ETA eta abarrak...

Bai, “gauzak”, eta oso inportanteak. Ba-dirudi konpontzeko zailtasunak ditugula. Txiki guztiak bezala, eta pobre guztiak

## ASPERTU

Uste dut bi milioi eta hirurehun karaktere idatzi ditudala, eta milioi eta erdi ageri direla liburuan. Orain e-book-erako bertsioa ari naiz prestatzen, eta paragrafo bat sartu beharrean nago nahitaez, zeren eta azken orduko ebakuntzetan moztu behar ez nuen zer edo zer ere moztu nuen eta, nahiz eta hariari ez dion eragiten, erantsi nahi dut. Uste dut gehiegi idatzi dudala azkenean, ez nuela bukatuko iruditzen zitzaidan, aspertu egin nintzen, gainera kendu nahi nuen nobela. Horretan, epe bat jarri nion neure buruari, kosta lain kosta epea beteko nuela aginduz. Eta atera da. Akats askorekin atera ere... Ez nuen hain azkar atera behar, baina beste urte bat joango ote zitzaidan beldur nintzen, eta zeharo aspertuta nengoen!



# KOLDO IZAGIRREREN IRAKURRALDIA

Koldo Izagirri eskatu nion nobelaren lehenengo irakurraldia egin zezan. Errespetu handia diot Koldori. Oso eskuzabala izan da. Ez dago ados ez nire hizkuntzarekin, ez bertan esaten diren gauza askorekin ere. Ez dio liburuari *nihil obstata* eman, ez zen asmoa ere, baina nolako eskuzabaltasunez hartu zuen nire eskaria, eta egin duen lana! Beraren euskara eta nirea hain dira diferenteak, izan ere! Baina diskretua da Koldo, eta diskrezioz egitekoa zen irakurraldia, nork bere ezintasun eta akatsak erakusten ditu-eta testuan. Koldo fidela da, gizon ona, eta kontsekuentea. “Ez hadi hain zintzoa izan!”, esaten diot, zintzo izan beharrak gauzak konplikatatu egiten ditu-eta askotan.

bezala, gure izaera onartzeko zailtasunak ditugu. Munduan zer garen onartuko bagenu, gure egoera, hobeto genuke. Gure historia ere, kaxkarra; hizkuntza, dena dela. Zer garen onartuko bagenu, txiki eta gutxi, eta zenbat egin dugun onartuko bagenu, harro izateko moduan ginateteke, baliabide horiek izan eta egin duguna ez baita gutxi, arraioa! Hor gaude gu munduan, Bizkaiko Golkoko bazter txikian, hizkuntza zahar bat dugula... Harro egoteko modukoak, baina ezin harro egon, beti inperio ametsetan, edo Nobel sariak barra-barra emango dizkigun hizkuntza dugula sinetsita, edo... Eta, aldiz, seiehun mila hiztun!... Kirtenkeria asko, ezta? Indarkeria bezala.

### ETAren indarkeria.

Bai. Onartuko bagenu hori ere frankismoaren gaiztakerien artean bat izan dela! Gu, xaloak, inozoak, dena sinesten dugunok, ETA! Kataluniarrek ere izan zuten, Terra Lliure, baina zenbat iraun zuen, bada! Katalunian ez zegoen talde hartan sartuko zenik. “Haizea hartzera!”, zioten. Hemen, berriz, jendea ETAn sartu zen! Urte batzuk lehenago seminario guztiak

## ‘Txiki eta pobre guztiak bezala, gure izaera onartzeko zailtasunak ditugu’

betetzeko adina zoro eduki genuen bezala! Uste dut mistika horretan bertan jai zela indarkeria. Horrek ustelkeria ikaragarria ekarri du. Indarkerian dabilena, bonbak eta pistolak hartuta dabilena... Eta bukatu den bezala bukatu da!

### Gaizki eta berandu, inoiz esan izan duzunez...

Bai. Baina, betiko bukatzekotan, gaizki bukatu behar zuela uste dut. Duintasun handiagorekin bukatu izan bagenu, ba-

liteke hemendik berrogei urtera baten bat berriz ere hastea. Historiak ondo demostratzen baldin badu indarkeria zera hau kaka bat izan dela, karlistada gehiago ez da izango Euskal Herrian. Ez dakit zenbat karlistada izan ditugun, baina denak galdu ditugu. Bestalde, zentzu etikoa dago: Hirugarren Mundura joan beharra handik “etika iraultzailea” ekartzeko! Barre egiteko modukoa da. Sar gaitezen giza eskubideen etikan, faborez! “Bai, baina hau ez da demokrazia...!”. Aitzakiak. Orain hilabete batzuk bukatu zen ETA eta, harrezkero, “Bukatu da, orain denok berdin gara. Bi aldeetatik izan dira biktimak!” Nahikoa da! Zein aldetan zegoen azpeitiar hura [Inazio Uribe]? Zein aldetan [Anjel] Berazadi? Eta pun-pun!, eta biak akabatu!

Gai nagusi batzuk dira zure liburuan. Horiakin batera, hainbat izpi ere bai, AHT egiteko lanak, baserri galera, hirigintza... Gure Euskal Herriari begirada kritikoa, zinez.

Uste dut gauzak hobeto egin ezinik ez zegoela. Donostian, zehazki. Behar bada horrek badu nostalgiatik ere! Ez naiz mendira askorik joaten, baina Donostian, Garbera bera basoa zen [saltoki handia dago orain]. Handik San Markoseraino [Donostialdeko zabortegia] ez dago ezer, etxea baino. Mendira joan eta txorien txio-txioa entzun ordez, pi-pi-pi! entzuten da; kamioitzarra atzeraka mendi puntan! Dena errepidez josi dugu, eta ez dakit berandu ez ote ditugun egin, autoak behera egingo duen sasoiari! Ez dakit errepideak hutsik ez ote diren geldituko, jendeak garraio publikoa gehiago erabiltzen ez ote den hasiko, bizikleta gehiago erabiltzen. Ez dakit, bada! Gai askori buruzko ikuspegia erakutsi dut *Martutenen*, bai. Horrek, adibidez, nire bakardadea erakusten du, hau da, ez dudala inon idazten, ez eztabaida foroetan edo mugimenduetan parte hartzen. Barruan daukadana bota beharra ere izango da hori!

## ZAHARRA

Badut estatus bat, adinak eman didana. Nobelak idazten ditudala badaki jendeak, eta horrek ere laguntzen du. Gainera, arraro fama ere badaukat, eta edozer esateko askatasuna ematen dit horrek. Politikoki okerra izatea ere bada hori. Pentsatzen dudana esaten dut, eta baliteke jendeak txantxetan ari naizela pentsatzea ere. Adinak edozer esateko askatasuna ematen du. Zahartzaroak duen abantaila da! Dena galduta dagoenean, ez dago galtzekorik! Irakeko inbasioaren kontra mintzatu zen senatari estatubatuar hura bezala. Han ez misilik ez ezer zegoela esan zuen, agintariak esaten ari zirenenaren kontra, batere kezkarik gabe: “Zaharra naiz, eta aberatsa, ezin dute nire kontra!”.



**Suitzan bizi izana zaitugu, zein herri eredu nahiko zenuke honako, Euskal Herrirako?**

Euskadiko Ezkerrakoa izan nintzen, eta hark “Euskandinavia” esaten zuen. Bada, orain ere, dudarik gabe, Euskandinavia... Garai hartan ikusi zen zenbateraino garen espainolak, ez garela Espainiatik apartatzekoak. Beti ari gara Espainia baino gehiago garela esanez, eta baliteke; baina nik pentsatzen nuen lehendakaria, hemen, ia-ia bizikletan ikusiko genuela egunero. Hainbeste egitura eta parafernalia gabe! Ez gara batere eskandinaviarrak. Alferrik da. Harrituta nago, bestalde, jendeak zein memoria historiko eskasa duen. Jendea ahaztuta bizi da, dutxak partekatzen zirela, txerri-jana biltzen zela atez ate... Ekonomialari askok esaten dutena, 80ko hamarkadara egin beharko genukeela atzera, neurri batean

behintzat. Aurreregi joan gara gauza askotan.

**Krisi luze honek dagokigun lekuan jarriko gaitu denok?**

Uste dut pobregoa izaten ikasi beharko dugula. Murrizketak egiten ari dira, erreformak egin beharrean. Ez gara soluzioak aplikatzeko gai, geure burua zeharo gaixotuta ikusten ez dugun arte. Eta, orduan, soluzioak okerragoak eta zailagoak dira. Diote, “hezkuntzan murrizketarik ez!” Nik ezagutzen dudanez, bada-goa zer murriztu. Berdin, osasun arloan. Sendagaien kontsumoa, adibidez. Leku askotan dagoen produktibitate eskasa, esaterako. Murrizketak non egin badago, eta egin litezke, modu arrazional batean. Baina murrizketak modu arrazionalan egiteko gai ez garenez, gillotina jartzen dugu martxan eta murrizketak egiten

**‘80ko hamarkadara egin beharko genuke atzera. Aurreregi joan gara gauza askotan’**

dira behar den eta behar ez den lekuan. Arlo guztietan gasta liteke diru gutxiago eta, aldi berean, gehiago egin. Osasun arloan, kulturean, hezkuntzan, zerbitzu sozialetan... eta, zer esanik ez, indar armatuetan eta erabat kenduko nituzkeen beste arlo batzuetan. Baina ez dugu nahi! Inork ez du amore eman nahi! ■

# Euskara salbuesteko dekretua, hizkuntza normalizazioaren seinale?

NEREA PIKABEA  
KAZETARIA

**E**uskaraz ikasi duten ikasleak hizkuntza horren ezagutza bermatzeko agiriak aurkezteaz salbuesita egongo dira hemendik aurrera Euskal Autonomia Erkidegoan. Eusko Jaurlaritzak onartu berri du horri bidea ematen dion dekretua. Dekretu horren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastorduen erdiak euskaraz ikasi dituztenak B1 hizkuntza eskakizuna aurkeztetik salbuesita egongo dira, eta Batxilergoko ikastorduen erdiak euskaraz ikasten dituztenak, berriz, B2 maila aurkeztetik. B eta D ereduetan ikasi dutenei eragiten die dekretuak eta 2008ko apiriletik lortutako tituluetan izango du eragina. Horrekin, administrazio publikoen lanpostu deialdietan euskara ziurtagiririk aurkeztu beharrik ez dute izango ikasketak euskaraz egin dituztela egiaztatzen dutenek. Dekretuak euskararen normalizazioan izango duen eraginaren gaineko iritzia jaso ditugu.





JON ZABALA,

IKA euskaltegiako koordinatzailea:

## ‘Aitortu nahi denaren azpitik dago benetako euskara maila’

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak esan du ez dagoela justifikatuta ikasketak euskaraz egin dituztenei administrazio publikoetan lan egiteko hizkuntza horren ezagutzaren ziurtagiria eskatzea. Zein da zure iritzia?

Hemen diglosia egoera batean gaude. Ez badugu ziurtagiririk eskatu behar, orduan hezkuntza garaian egin beharko zaie froga. Beste ikasgaietan lortzen dute eskatzen zaien gutxieneko maila, baina euskararen kasuan ez. Eta ezin zaio hezkuntzari errua bota, diglosiak berak markatzen baitu dena. Gasteizen, esate baterako, badira ume euskaldunak, baina oso gutxi jasozten dute euskara. Eskolara joaten dira entzutera, ez produzitzera. Ume horiek irakurmena zein entzumena nahiko garatuak dituzte, baina produzitzeko momentuan (idaztean edo hitz egitean) *deskalabrua* da. ISEI erakundeak B1 mailaren neurketa egin zuen 2006an Lehen Hezkuntzako 6. ikasurtean, eta horren arabera, B ereduko

ikasleen %70ek eta D ereduko %47k ez dute maila gainditzen. Ezin diogu geure buruari gezurrik esan. Jaurlaritzak behar lukeena eta errealitatea nahasi ditu. Gauzak horrela, hemendik hamabost urtera berriz ekin beharko diogu administrazioziko langileak trebatzeari.

**B eta D ereduan ikasi duen ikasle batek euskararen ezagutza ez duela bermatzen ondorioztatu behar dugu? Zerbait gaizki egiten ari garela pentsatu behar dugu orduan?**

Eskolak ez du %100 bermatzen. Tokia zein den, Gipuzkoa, Araba edo Bizkaia ez da gauza bera. Araban bertan ere ez da gauza bera Aramaion edo Gasteizen. Karga guztia ez zaio hezkuntzari utzi behar. Euskara maila nahikoa lortzea ez dagokio hezkuntzari bakarrik: gauza gehiago izan behar dira kontuan. Kanean, gizartean eredutzat ditugun pertsona horiek euskara erabiliko balute, euskararen erabilera indartu egingo litzateke.

**Urte mordoan daramazue euskalduntze prozesuan lanean. Zuen esperientziatik begiratuta, zein izango litzateke bidea? Zenbat denboraren ondoren esan daiteke pertsona bat gai dela ziurtagiri baten jabe izateko?**

Orain dela hogeitun urte askoz jende gehiago zegoen lehen urratsetan. Azken urteetan euskaltegiak datozenak, ordea, goragoko mailatan matrikulatzen dira.



Ez dira hutsetik hasten; beraz, eskolak zerbait eman die. Maila lortzea pertsonaren arabera ere bada. Israelen lortu zuten hogeitun urteren buruan biztanleen %80k hebreera ikastea. Erabaki politiko bat egon zen, diru asko gastatu zuten, eta gainera, jendea horretara oso emana zegoen.

**Dekretuak berdin balio du Euskal Autonomia Erkidego osorako ala tokian tokiko egoera soziolinguistikoak azkartu edo moteldu dezake euskararen ezagutza?**

Arabian bertan, Aramaioko batek eta Argantzuneko batek aitortpen bera jasoko dute; baina ez dute euskara maila bera, eta dekretuak berdindu egin ditu. Hemendik aurrera, berdinez izango da non ikasten den, baita D edo B ereduetan ikasten den, eta horrek D ereduari ospea galtzea ekar diezaioke. Gu ados geundek dekretuarekin, baina orduan hemendik aurrera oposizioen erdiak euskaraz egin beharko litzukete. Euskara baldin badakite, gai izan beharko dute oposizioak ondo egiteko.

**Zer nolako eragina izango du dekretuak euskaltegietan?**

Jaurlaritzan esan digute bost urtetan dekretuaren ondorioz %25 jaitsiko zaigula ikasle kopurua. Beraz, maila berean jaitsiko da Jaurlaritzak ematen digun laguntza. Gure helburua, berez, lanik gabe geratzea da, gizarteak euskaltegien beharrik ez duelako; baina oraingo honetan langabeziara bidaliko gaituzte gure helburuak bete gabe. ●



MARIAN OZCARIZ,

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailburuordea:

## *‘Normaltasun osoko egoera batera heltzeko falta zaigun bidea laburtuko zaigu’*

Eusko Jaurlaritzatik esan duzue dekretu hori urrats garrantzitsua izango dela euskararen hizkuntza normalizaziora begira. Ze onura ekarriko dizkie dekretu honek euskal herritarrei eta euskarari?

Bide hau da benetako hizkuntza-normalizazio batera eramango gaituena; ez baita normala, esaterako, Frantzia bere herritarrek frantses eskakizuna aurkeztu behar izatea edota Alemanian alemanezkoa. Suposatzen da hizkuntza-gaitasun horiek hezkuntza sistemaren bitartez bereganatzen direla. Atzerritarrentzat soilik erabiltzen dira horrelako hizkuntza-probak. Biztanleriarentzat ere aurre-pauso handi bat izango da: behin euskaraz ikasita eta beren euskara gaitasuna hezkuntza sistemaren bitartez bermatuta dutenean, ez dute azterketa eta froga berririk egin behar, eta, era honetan, dirua eta denbora aurreztuko dira.

**Beraz, dekretu honekin uler dezakegu euskara normalizatutako hizkuntza dela?**

Dekretuak aintzat hartzen du hezkuntza sistemak urte hauetan egin duen ahalegin ikaragarria euskararen ezagutza eta erabilera indartzeko orduan, eta, aldi berean, sekula eman gabeko urratsa egin du euskararen normalizazio-bidean. Dekretu honi esker, normaltasun osoko egoera batera heltzeko falta zaigun bidea laburtuko zaigu. Helduko da momentu bat non ez den beharrezkoa izango ezer salbuesterik, non euskararen erabilera eta ezagutza guztiz arrunta izango den eta azterketak eta frogak atzerrian jaio direnentzat bakarrik utziko diren.

Egoera soziolinguistikoa ez da bera euskal lurralde guztian, eta beraz, B eta D ereduetan ikasten duten ikasleek ez dute euskara maila bera lortzen ikasketak amaitzen dituztenean. Orduan, nola bermatu eta erakutsiko da euskararen ezagutza hori lanpostu batera sartzeko orduan?


Euskarazko irakaskuntza guztiz sendoturik eta finkaturik dago, eta jadanik badira zenbait euskal gazte-promozio beren unibertsitateko ikasketak arrakastaz burutu dituztenak, ikasketa-ibilbide osoa euskaraz egin ondoren. Hizkuntza-eskakizunen jabe diren irakasleen portzentajea zeharo handitu da, %85 ingurukoa da orain. Hala ere, zuhurtziaz jokatu nahi izan dugu. Horrela, adibidez, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua edo Teknikari (Erdi mailako Lanbide Heziketari dagokiona) titulua lortzen dutenek beren ikasketen erdia baino gehiago euskaraz egin ondoren, ez dute Hizkuntzen Europako Erreferen-



tzi Marko Bateratuaren B1 mailarekin baliokidea den euskarazko ziurtagiririk aurkeztu behar izango.

**Euskal Autonomia Erkidegoan profesional espezialista askok ezin du administrazioko lanpostu batean aritu ez dutelako euskararen inolako ziurtagiririk aurkezten. Dekretu honekin uste duzu profesionalik onenak izango ditugula administrazioan?**

Dekretu honek lortzen duen gauzarik garrantzitsuen euskaraz ikasketak burutu dituzten ikasleei, eta, ondorioz, beren euskararen ezagutza egiaztatuta duten ikasleei, dirua eta denbora aurrezte da. Ikasle hauek orain arte EGA, Hizkuntza Eskoletako tituluak edota HABEko tituluak atera behar zituzten administrazio publikoan lan egiteko. Hemendik aurrera ez dute azterketa berririk egin behar, Hezkuntza sistemak ziurtatuko dielako euskaraz ikasi badute. Baina dekretu honekin bakarrik ez da ziurtatzen langilerik hoberenak administrazioaren lanpostuetara sartzea; horretarako, badugu indarrean orain ere guztiz bermaturiko oposaketa-sistema bat. Sistema horren barnean, lanpostu batzuetarako euskara maila handia eskatzen da, bertan lan egiteko nahitaezkoa delako. ●



IMANOL IGEREGI,

Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko zuzendaria:

## ‘Trantsizio sistema bat beharko genuke’

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak esan du ez dagoela justifikatuta ikasketak euskaraz egin dituztenei administrazio publikoetan lan egiteko hizkuntza horren ezagutzaren ziurtagiria eskatzea. Zein da zure iritzia?

Momentu honetan horrelako proposamen bati ezezkorik ezin diogu eman, orokorrean hartuta. Azken batean B eta D eruedetan ikasi duen ikasle orok eduki beharko luke gaitasuna edo konpetentzia linguistiko nahikoa horretara iristeko. Baina errealitatea ez da hori. Ikastola batean euskaraz ikasi duen %25ek oraindik ez du bermatzen. Orduan, oso garbi geratu behar da zeintzuk diren derrigorrezko eskolaldian ezarri behar diren helburu linguistikoak, eta konpetentzia hori lortu izana bermatuko beharko da. Eta bitartean antolatu beharko da behin-behineko sistema bat. Dekretu horrek ekarri ahal duena da epe laburrean gaurko tituluen devaluazioa.

**B eta D eruedan ikasi duen ikasle batek euskararen ezagutza ez duela bermatzen**



**ondorioztatu behar dugu? Zerbait gaizki egiten ari garela pentsatu behar dugu orduan?**

Gaztelaniaz bermatuta dago hiztunen hizkuntza konpetentzia? Inork ez du zalantzan jartzen, baina emaitzak antzerakoak izango lirakeke seguru asko, halako froga bat gaztelaniaz egingo bagenu. Gertatzen dena da gaztelania hizkuntza estandarizatua dela, onartua, gehiengo baten hizkuntza, eta ez dagoela frogatu beharrik; menperatzen dutenak hiztun konpetenteak dira. Gero frogak egiten direnean ikusten da antzerako konpetentziak adierazten direla euskaraz zein gaztelaniaz. Baina oraindik euskaldunoi balio erantsi bat eskatzen zaigu, frogaren bitartez konpetentzia adieraztea. Guk pentsatzen dugu derrigorrezko eskolaldia amaitzerakoan ikasle baten konpetentzia linguistikoak oso garbiak izan behar direla, eta horren baitan hezkun-

tza sistemak berak bermatu behar duela hiztun konpetenteak izango direla gure ikasleak, baina egoera hori gaur egun ez da bermatzen.

**Dekretuak berdin balio du Euskal Autonomia Erkidego osorako ala tokian tokiko egoera soziolinguistikoak azkartu edo moteldu dezake euskararen ezagutza?**

Denok onartuko dugu derrigorrezko curriculumean azaltzen diren gutxiengoetara iritsi behar direla ikasleak, baita euskararen arloan ere. Orduan, ez bagara iristen, horrek esan nahi du hizkuntza gutxitu horrek oraindik behar duela ibilbide bat bere egoera erabat bermatzeko. Hemendik aurrera inolako frogarik gabe, eta behin-behineko prozesua bermatu gabe, halako profil bat aitortzeak beldur pixka bat ematen dit, azken batean hizkuntza gutxitu horren eta titulazioaren inguruko devaluaziorako. Eta seguru asko euskararen arerioek erabiliko dute. Beraz, nik uste dut trantsizio sistema bat beharko genukeela, baina garbi onartu behar dugu orokorrean normalizazioaren bidea hori dela. Baina tarteko bide hori egin beharko litzateke. Nik uste dut Hezkuntza Sailak arinegi joan nahi duela.

**Dekretuak mesede egingo die euskarazko irakaskuntzan ari diren ikasle txeei? Euskarazko matrikulazioak igo egingo dira?**

Nik uste dut bide hori berez bermatuta dagoela, eskolaren bidea bermatuta dago. D erueda urtez urte indartzen ari da. Gobernuan dagoena dagoela, horretan ez dago eraginik. Gizarte honek aukera bat egin du, elebitasunaren aukera bermatuta dago eta aukera hori ekin-tzetara eraman behar dugu, sozialki eta linguistikoki gorpuztu behar dugu. ●



XABIER ISASI,

EHUko psikologia eta estatistika irakaslea:

### *‘Asmo oneko erabakia bada ere, ez dagokio hizkuntza-egoeraren errealitateari’*

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak esan du ez dagoela justifikatuta ikasketak euskaraz egin dituztenei administrazio publikoetan lan egiteko hizkuntza horren ezagutzaren ziurtagiria eskatzea. Zein da zure iritzia?

Dekretu berriarekin, hizkuntza-gaitasunei dagokienez, nahikotasuna aitortzen zaie euskaraz ikasi dutenei bigarren hezkuntza mailatik unibertsitatearaino. Lehen, norberak ziurtatu behar zuen berariazko tituluarekin bere hizkuntza-gaitasuna. Nire iritziz, asmo oneko erabakia bada ere, ez dagokio hizkuntza-egoeraren errealitateari.

Hizkuntza-egoeraren normaltasuna dekretuz ezin daiteke arautu. Adibide bat ipintzearen, emakume eta gizonen arteko legezko berdintasuna ezarrita dago, baina berdintasun hori benetakoa izan dadin bitarteko ugari eta lan handia egin behar da. Hizkuntza gutxituen kasuan, antzera gertatzen da, hizkuntzen arteko

legezko berdintasuna aldarrikatzea ez da nahikoa. Elebidun gutxik lortzen du hizkuntza gutxituaren hizkuntza-gaitasunaren nahikotasuna. Hori hizkuntzen arteko asimetriaren ondorio zuzena da; asimetria hori zenbat eta handiagoa izan hizkuntza-gaitasuna lortzen dutenen proportzioa orduan eta txikiagoa da.

**B eta D ereduan ikasi duen ikasle batek euskararen ezagutza ez duela bermatzen ondorioztatu behar dugu? Zerbait gaizki egiten ari garela pentsatu behar dugu orduan?**

Bizi dugun hizkuntza-egoeran eskolak ez du bermatzen ikasleen euskararen hizkuntza-gaitasunaren nahikotasuna. Baina horrek ez du esan nahi eskolak zerbait gaizki egiten duenik. Horrek esan nahi du eskola ez dela aski euskararen hizkuntza-gaitasunaren nahikotasuna lortzeko. Ukaezina da A eta B hizkuntza-ereduetako ikasleek ez dutela hizkuntza-gaitasunaren nahikotasuna lortzen. D hizkuntza-ereduko kasuan, berriz, gune soziolinguistikokoaren arabera izan ohi da. Edozein kasutan, arazoa ez da eskolarena bakarrik. Eskolak ere sufritzen du hizkuntzen arteko asimetria. Hizkuntzen irakaskuntzari dagozkion legeak eta araubideak beteko balira, logikoa eta zuzena izango litzateke dekretuak arautzen duena. Alabaina, dekretuaren oinarriak ez dira zuzenak.



**Jaurlaritzak esan du dekretua ez dela unibertsala izango, tentuz hartutako erabakia izan dela. Nola bermatu beharko litzateke euskararen ezagutza?**

Euskararen arazoa ez da hiztun bakoitzaren arazo pertsonala, baizik eta arazo soziala, eta soziala den neurri berean da arazo politikoa. Hizkuntzen arteko asimetria murrizteko bide bakarra hizkuntza-politika eraginkorra izatea da. Hau da, euskararen “ezagutza” aldagarria da: garaia, tokia eta behar izanaren arabera aldatzen da. Legebiltzarreko itzultzaileari edo ate nagusiko zaindariari bere lanposturako euskararen ezagutza maila exijitu beharko litzaioke. Batetik, euskara oraindino estandarizazio prozesuan dago. Bestetik, hizkuntzen arteko asimetriak zaildu egiten du euskararen egoera. Kasuan kasu, langileen hautaketa prozesuetan berariazko probak egin beharko dira ziurtatzeko eskatzen den euskara maila betetzen dela.

**Euskararen ezagutza neurtzerakoan, tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu beharko litzateke ala dekretuak emaitza berak lortuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoan?**

Euskal Herria, eta Euskal Autonomia Erkidegoa ere, euskarari dagokionez eremu heterogeneoa da. Eskualde erdaldunetan onuragarria izan daitekeena eskualde euskaldunetan kaltegarria izan daiteke. Orain arteko hizkuntza-politika udalerrir erdaldunetan, oro har, onuragarria izan da, baina udalerrir oso euskaldunetan kaltegarria izan da. Hori euskararen erabilerraren neurketetan ikusi ahal izan da. ■



# Ze, zer, zein

PATXI PETRIRENA

ITZULTZAILEA ETA ZUZENTZAILEA

*Hiztegi Batuak* hau dio *ze* hitzari buruz: «*ze* 1 *Lgart.* h. *ezen*; *zeren* 2 *Lgart.* h. *zer*; *zein*». Beraz, euskara baturako, galdetzailerak *zer* forman idaztea hobesten du (edo, hala dagokionean, *zein*). Hain zuzen ere, galderetan *zer* eta *zein* nolatsu bereizten ditugun eta zenbaitetan nolako zalantza sortzen den aipatu nahi dut artikulu honen bigarren partean. Lehenbizi, *ze* eta *zer* formen inguruko ohar batzuk egingo ditut.

## 1. Ze

*Orotariko Euskal Hiztegiak*, *ze* sarreran, ez dakar *zer* (edo *zein*) galdetzailerari buruzko informaziorik; *ze* sarrera horretan datorren guztia *Hiztegi Batu*ko 1. adierari buruzkoa da:

- Zagor or puska baten, **ze** eztaikit nor dan (kausazkoa).
- Ain ederto ikasi eban jostun edo josta bati jaokan guztija **ze**, ez eguan bera lakorik (ondoriozkoa).
- Azkenez, jakin beozu, **ze**, zelakoa dan bititza, alakoa dala eriotza (-*ela* osagarriari sarrera ematekoa).
- Nik gura dot edan bidriozko kopa onetati **ze** beste taza guztietati (konparaziozkoa).

*Hiztegi Batuak* diotenaren arabera, euskara batuan *zeren* edo *ezen* dugu erabiltzeko kasu horietan, *zer* dagokion. Gaingaitetik: a) kasuan, izan daiteke *ezen* nahiz *zeren*, baina besteetan *ezen* baino *ez*<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Konparaziozkoetan (d) eskuarki *ezen ez*: “Hobe zela pota egitea, ezen ez arrozoin txar bat emaita”. Xa Odol 39.

## 2. Zer

*Orotariko Euskal Hiztegi*an berean, *zer* sarreran, informazio ugari dugu galdetzailerari horri buruz. Oso laburturik:

- Zer* da iparraldeko forma eta Gipuzkoan ere zabalduea; *ze* aldaera, berriz, ongi dokumentatuta dago Bizkaiko tradizioan Mikoletaz geroztik, eta orobat ageri da Mogelen eta gipuzkoar idazleen testuetan XIX. mendean bukaeraz geroztik.
- Bizkaiko idazle zaharrek bereizketa hau egin ohi zuten: batetik, *zer* izenordain galdetzailerak (*zer da hori?*) –ondoko aditza bokalez hasia nahiz kontsonantez hasia izan–; bestetik, *ze* izenlagun galdetzailerak (*ze gauza da hori?*), harridurazkoa (*ze gauza!*) edo adierazkorra (*ze polita!*, *ze ederto!*). Bereizkuntza hori, oro har, gorde egin zen Bizkaiko testuetan XVIII. eta XIX. mendeetan, autore batzuetan sendo eta beste batzuetan ez hainbeste.
- Ze* gutxitu egin zen Bizkaiko idazleen artean XX. mendean, eta *zer* edo *zein* nagusitu.

## 3. Zer ordu da?; zer alde dagoen; zer eguraldi ederra!

Izenlagun galdetzailerak moduan ere (*zer + izena*), hainbat eta hainbat adibidetan dugu *zer* OEHN, nahiz *ze* ere ageri den batzuetan, jakina. *Hiztegi Batu*aren argitan, ez da dudarik halakoetan ere *zer* dugula erabiltzeko batu estandarrean (ez bada *zein*).

- Ama eneaen seme bageaz / oi zuk zer probetxu dozu? Lazarraga 1144r.
- Zer diferentzia da konseilluen eta manamenduen artean? Mat 151.
- Zer esker, zer pagamendu emanen de-raue? Ax 226 (V 150).
- Ze ordu da? Mic 12r.

Zehar-galderetan ere berdin agertzen da *zer* (batzuetan *ze*), bera bakarrik nahiz izen baten ondoren:

- Arren, esazu / zeure pensamentuan / **zer** dadukazun. Lazarraga 1165v.
- Eta klarki emaiten baitute aditzera **zer muetetakoak** diren. ES 168.
- Memoria egiten debela **zer erritan, zer etxetan** [...] ibili dan. OA 134.
- Pensetan dala [...] **ze lekutan** egon dan [...] ze ofizio euki daben. Arz 51.

Orobat harridurazkoetan –*zein(en)* ere bai, adjektiboekin: “*zein(en)* [erloju] ederra!”–:

- Zer aurpegi ederra** duzun gaur. Mde Pr 106.
- Zer poza** nerea! Munita 14 (19 ze).
- O! **Zer erloju ederra!** Izeta DirG 112.
- Ama, **zer artak eta pilpirak** nitaz zinituen izan. Xa Odol 79.

## 4. Zein

*Zein* galdetzailerari buruz, honela dio OEHK: «Izen bat lagunduz, hala zuzeneko galderetan nola zehar-galderetan, klase bereko zenbait elementuren artean hautatzeko. *Zein lekutan? Zein santuren argitarako? Zein liburu artu dozu?*».

Alderdi hori nahi nuke pixka bat ukitu, *zeren*, amaieran, beste adibide sorta txikiago bat dakar azalpen honen ondoren: «Literatura-tradizioan nagusiki *zer* ager-

tzen den testuinguru batzuetan. *Zein estatütan Jinkuak kreatü zitien Adam eta Eba? CatLan 32. Nor da bera, edo zein eskubide dauko iñori galarazoteko gure etxera etortea? Echa Jos 322. Andik aurrerako zein asmo nerabilkian. Anab Aprika 74. Nik, nere lantxo oni, zein izen eman ote nezaioke? Zait Plat 2. Zein arrazoi zuten kontra egoteko? MEIG IX 78».*

Puntu horri dagokionez, hau diogu *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*<sup>2</sup> lanean:

Galdera irekietan, *zer* galdetzailea erabiltzen da; multzo jakin batetik bat bereizi behar denean, berriz, *zein*. Batzuetan, biak erabil daitezke, bakoitza bere esanahiarekin: galdera erabat irekitzat hartzen bada, *zer*; era batera edo bestera zedarrituzat daukagun multzo batetik bat bereizteko eskatzen dugunean, *zein*:

- a. **Zer egunetan** joan behar duzu mendira?
- b. **Zein egunetan** joan behar duzu mendira?
- a. **Zer kolore** erabili da gehien?
- b. **Zein kolore** erabili da gehien?

Ildo horretan, deigarri gertatzen zait «Zein eguraldi egingo du?» modukoak noiz edo noiz entzutea eta irakurtzea<sup>3</sup>. Nago, halaber, zer dela espero izatekoa elementu-klase edo multzo jakin bat nekez irudika litekeenean (*zer iritzi, zer ondorio...*), eta honako kopuru hauek aurkitu ditut Ereduzko Prosa Gaur corpusean (2012-06-01).

**ze iritzi** 3 (liburuetan 1, prentsan 2)  
**zer iritzi** 143 (liburuetan 36, prentsan 107)  
**zein iritzi** 61 (liburuetan 5, prentsan 56)

**ze ondorio** 14 (liburuetan 1, prentsan 13)  
**zer ondorio** 130 (liburuetan 36, prentsan 94)  
**zein ondorio** 53 (liburuetan 10, prentsan 43)

Baliteke testuinguru batzuetan iritziak eta ondorioak elementu identifikatuak izatea, sorta jakin bat osatzen dutenak, eta horrek erraztea zein erabiltzeko aukera. Ildo horretan, eskubide izenarekin, adibidez, modu banatan har genitzake *zer eskubide* eta *zein eskubide* honako testuinguru hauetan:

- a. **Zer eskubide** duzu zuk hori esateko? (alegia, “ez duzu eskubiderik” ulertzen dugu)
- b. **Zein eskubide** urratzen du agindu horrek? (eskubide tipifikatuetatik, zein?)<sup>4</sup>

Nolanahi ere, hiztunaren asmoaren mende dagoke neurri batean aukera hori, eta irakurlearen esku uzten dut hemen esandakoen balioespena. Azken ohar bat: egiatzatua dut zenbaitek zalantzan

jarri izan dutela “zer + izena” egituraren zilegitasuna, eta aukera ustez seguruaren aldera egiten dutela zein baliatuta.

## 5. Zer(tzuk), zein(tzuk), nor(tzuk)

Erreferente plurala dutenean, *nor*, *zer* eta *zein* galdetzaileen tokian *nortzuk*, *zertzuk* eta *zeintzuk* ere erabiltzen dira, batez ere mendebaldean, baina Euskaltzaindiak forma bakunei eman die lehentasuna (*nor*, *zer*, *zein*) 11. arauan:

Euskaltzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak (*nortzuk*, *zertzuk*, *zeintzuk*) literatura tradizio jakin bati lotuak daudela, hau erabakitzen du: *nor*, *zer* eta *zein* formei lehentasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorri duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan –forma markatu gisa esan nahi da– aurkezten, bai eta onesten ere.

Beraz, esaldi hauetan *nor* eta *nork* ditugu lehen aukera:

Ez genekien **nor** ziren bi pertsona haiek.  
**Nork** izan dute eraginik handiena zuen musikan?

Forma markatuak erabiliz gero, *batzuen* paradigma berari jarraitu behar zaio, aipatutako arauak dioenez: *nortzuk*, *nortzuek*, *nortzuei*, *nortzuen...* Adibidez, aurreko adibide horietan, *nortzuk ziren* (ez \**nortzu*) eta *nortzuek izan dute* (ez \**nortzuk*). ■

<sup>2</sup> Petrirena, Patxi: *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2011. EIMAREN estilo-liburuaren zazpigarren atala.

<sup>3</sup> Ereduzko Prosa Gaur corpusean bada adibideren bat.

<sup>4</sup> Halakoetan ere erabiltzen da, nolatan ere, *zer*.

# Ariketak77

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

## I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena eta hutsuneetan sartu:

1. Tximinia prestatzen ari nintzela neguko lehen su-aldia pizteko, zerbait solidoa erori da \_\_\_\_\_ batera.
2. Korrikalariari erresonantzia magnetikoa egingo diote gaur, ezker hankako \_\_\_\_\_ bikiko mina larria den jakiteko.
3. Saskibaloit taldeko entrenatzaileak adierazi duenez, bere taldea talde handiak menderatzeko \_\_\_\_\_ da.
4. Herriko autobus \_\_\_\_\_ berria Sumendi parkean egin beharrean, baserritar bati desjabetutako lursail batean eraikitzea onartu du udalak.
5. Etorkizuneko hazkundea, besteak beste, \_\_\_\_\_ belaunaldi berri batek ekarriko omen du.
6. Gizateriaren aurkako delituak egitea egotzita, Mindela \_\_\_\_\_ ohi-aren aurkako auzia hasi zuten herrialde hartan.
7. Igandean izandako bero eta eguzkiari aurre egiteko \_\_\_\_\_ bila ibili ziren zuhaitz artean.
8. Nagusiak omentzeko jai herrikoa izan da orain artean, eta \_\_\_\_\_ ere horrela izan beharko lukeela uste dute herritarrek.
9. Aurtengo neguko lehen elurtean bakarrik, 700 tona gatz eta 90.000 litro \_\_\_\_\_ banatu dira.
10. Gose greba mugagabea hasi dute 700 \_\_\_\_\_ inguruk kartzeletan.

gedarrarekin/kedarrarekin

giharre/gihar

gei/gai

gelditoki/geltoki

haize-generadore/haize-sorgailu

general/jeneral

gerizape/gerizpe

gerorat/gerora

gezal/gesal

gerrilero/gerrillari

# IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

**2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren *Toki-administrazioaren hiztegia*<sup>1</sup> kontuan hartuz, aukeratu termino bakoitzari dagokion definizioa:**

1. Ohiko osoko bilkura
  2. Zuzenketa
  3. Erregelamendu organikoa
  4. Udal-errola
  5. Alberria
  6. Ondare ondasuna
  7. Ezohiko erabilera
  8. Zeharkako kudeaketa
  9. Udal-mugartea
  10. Toki-korporazioa
- 
- A. Udalak bere eskumenak burutzeko hartzen duen lurraldea.
  - B. Udalerria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeek hartzen duten izeneta-tako bat.
  - C. Udalerrri bateko auzotarrak biltzen dituen administrazio-erregistroa.
  - D. Toki-erakunde bat gobernatzeko eta administratzeko ordezkaritza duen kide anitzeko organo gorena.
  - E. Toki-erakundearen antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen erregelamendua, toki-erakundeak bere burua antolatzeko eskumena erabiliz egina.
  - F. Aldizkakotasuna aurretiaz ezarria duen osoko bilkura.
  - G. Korporazioko edozein kidek irizpen edo proposamen bat aldatzeko egiten duen planteamendua, gaia eztabaidatzen hasi aurretik lehendakariari idatziz aurkeztu behar zaiona.
  - H. Jabari publikoko ondasunei dagokien erabilera, ondasun horien xede nagusiarekin bat ez datorrena.
  - I. Toki-erakundeen jabetzakoak izanik, erabilera edo zerbitzu publikokoak ez diren ondasunak; diru-iturri izan daitezke erakundearentzat.
  - J. Toki-erakundearen eskumeneko zerbitzuak eskaintzeko, beste erakunde batek emakida, errentamendu edo kontzertu bidez egindako kudeaketa.

<sup>1</sup> *Toki-administrazioaren hiztegia*: [http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/6503/es\\_2415/adjuntos/Hiztegiak/TokiAdmin\\_DF.doc.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/6503/es_2415/adjuntos/Hiztegiak/TokiAdmin_DF.doc.pdf)

3. «Ze, zer, zein» artikulua egileak planteatzen duenaren ildotik, identifikatu eta moldatu hobe daitezkeen esaldiak:

1. Ideia-lehiaketaren bidez erabakiko da zein izen jarriko diogun herriko eguneko zentroari.
2. Hauxe da, beraz, zure etxea. Eta, zein solairutan bizi zara?
3. Beste krisiekin alderatuz, ze diferentzia ditu gaur egunekoak?
4. Gurasoek eta umeez batera gozatzeko moduko tailer eta irteerak prestatu ditugu, ea zer aukeratu duzuen.
5. Nonbait, Ipar Pazifikokoaren Erdiguneko Biraketan plastiko uharte handi bat dago. Hondakinen zati handi bat ur azpian dagoenez, ezin da ziur esan zein neurritakoa den ere.
6. Nortzu dira Fukushima zentraletako errektore nuklearrak garbitzen ari diren heroiak?
7. Hezitzaileen artean, zalantza hauek dira arruntenak: Nola onartu balore berriak? Zer malgutasun maila onartu eta aplikatu? Nola zabaldu hau guztia familiei?...
8. Gasteizko Udalak ikusarazi nahi du gazte baten proiektu pertsonalean zein garrantzi duen kanpoan ikasteak edo lan egiteak.
9. Ez dakigu gas isuriak ugaritu izanak zein ondorio izango duen, zientzian ez baitago erreferentziarik.
10. Zein irudi gogorazten dizu pantailakoak? Gazta, eraikuntza bat, arte moderno, ikuspegi desberdinak, dimentsioak...
11. Beraz, aurkezle-lanak egin behar dituzu jardunaldietako hitzaldiren baten. Zein egunetan, bada?
12. Zeintzuk diren organo judizialak? Bada, Auzitegi Gorena, Auzitegi Nazionala, Probintzia Auzitegia...

4. Adierazi zenbaki bidez honako hitz hauei dagozkien sinonimoak zein diren:

1	artatzen		beharbada, agian
2	dibulgazioa		bekaizkeria, ondamu
3	zirtolari		zaintzen, jagoten
4	menturaz		ondikoz, zoritxarrez
5	derrepente		lausengu, zurikeria
6	losintxa		hedapena, zabalkundea
7	inbidia		adarjotzaile, barreragile
8	tamalez		ulertu, entenditu
9	konprenitu		kontu, asunto
10	auzi		bat-batean, behingoan

# Soluzioak77

- I.
- |                   |                |
|-------------------|----------------|
| 1. kedarrarekin   | 6. jeneral     |
| 2. gihar          | 7. gerizpe     |
| 3. gai            | 8. gerora      |
| 4. geltoki        | 9. gesal       |
| 5. haize-sorgailu | 10. gerrillari |
- 2.
- |      |       |
|------|-------|
| 1. F | 6. I  |
| 2. G | 7. H  |
| 3. E | 8. J  |
| 4. C | 9. A  |
| 5. B | 10. D |
- 3.
1. Ideia-lehiaketaren bidez erabakiko da **zer** izen jarriko diogun herriko eguneko zentroari.
  2. Hauxe da, beraz, zure etxea. Eta, **zein** solairutan bizi zara? **ONDO**
  3. Beste krisiekin alderatuz, **zer** diferentzia ditu gaur egunekoak?
  4. Gurasoek eta umeez batera gozatzeko moduko tailer eta irteerak prestatu ditugu, ea **zein** aukeratzen duzuen.
  5. Nonbait, Ipar Pazifikokoaren Erdiguneko Biraketan plastiko uharte handi bat dago. Hondakinen zati handi bat ur azpian dagoenez, ezin da ziur esan **zer** neurritakoa den ere.
  6. Nor dira Fukushima zentraletako erreaktore nuklearrak garbitzen ari diren heroiak?
  7. Hezitzaileen artean, zalantza hauek dira arruntenak: Nola onartu balore berriak? **Zer** malgutatsun maila onartu eta aplikatu? Nola zabaldu hau guztia familiei?... **ONDO**
  8. Gasteizko Udalak ikusarazi nahi du gazte baten proiektu pertsonalean **zer** garrantzi duen kanpoan ikasteak edo lan egiteak.
  9. Ez dakigu gas isuriak ugaritu izanak **zer** ondorio izango duen, zientzian ez baitago erreferentziarik.
  10. **Zer** irudi gogorarazten dizu pantailakoak? Gazta, eraikuntza bat, arte modernoa, ikuspegi desberdinak, dimentsioak...
  11. Beraz, aurkezle-lanak egin behar dituzu jardunaldietako hitzaldiren baten. **Zein** egunetan, bada? **ONDO**
  12. **Zein** diren organo judizialak? Bada, Auzitegi Gorena, Auzitegi Nazionala, Probintzia Auzitegia...
- 4.
1. artatzen: zaintzen, jagoten
  2. dibulgazioa: hedapena, zabalkundea
  3. zirtolari: adarjotzaile, barreragile
  4. menturaz: beharbada, agian
  5. derrepente: bat-batean, behingoan
  6. losintxa: lausengu, zurikeria
  7. inbidia: bekaizkeria, ondamu
  8. tamalez: ondikoz, zoritxarrez
  9. konprenitu: ulertu, entenditu
  10. auzi: kontu, asunto

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



# Norbait. Eta kito

IRATI GOIKOETXEA

Sarari ez zitzaizkion gustatzen *Bazen behin* esanez hasten ziren ipuinak. Zergatik eta behin aitonari entzun ziolako “Ipuinak teilatutik hasi behar ditun, txiki!”. Horregatik, Sarari gustatzen zitzaizkion ipuinek ez zuten aterik izaten eta leihoak ere apenas izaten zituzten. Sarari gustatzen zitzaizkion ipuinek teillatu handi bat eta teillatuepean zulo handiago izaten zuten. Eta piano bat eta galtzerdi pare bikoterik gabea eta ipotx baten irribarrea eta ilargi pusketak bat eta liburu baten azken puntu izoztua eta beste piano bat. Hori dena egoten zen zuloan. Hori dena eta izerdi tanta bat ere bai. Bigarren pianoa teillatua uzten zuen Norbaitek, baina, beste guztia zuloan egoten zen. Norbait Sararen gustuko ipuinetako protagonista zen. Zergatik eta behin aitonari entzun ziolako “Norbait norbait da, eta kito”. Eta Sarari munduko izenik politena iruditu zitzaion Norbait hura. Aitonari entzun ziolako eta batez ere Norbait hura –edozein izanda ere– txokolatetzkoa izan zitekeelako. Sarari txokolata asko gustatzen zitzaion, baina, batez ere teillatuetako pianoak gustatzen zitzaizkion. Eta batez ere batez ere batez ere teillatuetako txokolatetzko pianoak.

Aitonak kontatu zion “Bigarren pianoa teillatua utzi din Norbaitek”. Eta horregatik esan zion amari “Pianoa jotzen ikasi nahi dut, amatxo”. Ez zion esan pianoa

jotzen ikasi nahi zuelako, teillatua egon nahi zuelako baizik. Eta amari, mesedez, pianoa teillatu gainean jarriko al zion galdetu zionean, amak: “Zoratu egin al zara, ala?” esan eta pianoa teillatua jarri zion.

Aitonak kontatu zion hura ere, Edurne Zuriren ipuinetako ipotxetako bat beste sei ipotxen irribarreei hozka eginda bizi zela, “Zazpi aho ditu, orduan?”, galdetzen zion Sarak aitonari, eta hark ezetz, “Zazpi ilargi dizkin, hiru ilbeheran eta hiru ilgoran”. “Eta zazpigarrena, aitona?”. “Zazpigarrena teillatuepean aurkituko dun, Norbaitek eraman omen din”. “Eta beste sei ipotxak, aitona? Irribarrerik gabe bizi dira?”. “Ez, txiki, ilargia falta zaien...”. “Eta gaua?”. “Gaua sudurpean eramaten diten”. “Eta?”. “Eta... ez zagon gehiago; joko dun pianoa?”. Eta Sara teillatura igo eta pianoa jotzen hasten zen, oin banatan galtzerdi ezberdina jantzita zuela konturatu gabe. Norbaitek galtzerdi haien bikoteak zazpigarren irribarreen ondoan jarri zitzaizkion. Teillatuepean. Eta irribarreak pentsatu zuen “Galtzerdi bat eta galtzerdi bat ez dira bi galtzerdi, galtzerdiek ez dakite matematikaz askorik”. Eta Sarak pentsatu zuen “Nik ere ez”. Eta egiten ez zekien gauzen zerrenda

egiten hasten zen horrelakoetan. Bat: lo nagoela begiak zabaldu. Bi: itsasoa edan. Hiru: buruz behera jarrita arnasa hartu. Eta zerrenda izozkailuan sartzen zuen gero, eta ahaztu egiten zitzaion izozkailua berriro zabaltzea. Zerrenda puntu huts bihurtzen zitzaion. Liburu bateko azken puntu izoztu. Hura ere teillatuepean.

Behin bururatu zitzaion –behin baka- rrik, eta eskerrak– teillatua teillatuepeko zuloan sartzea.

–Ez dago tokirik, aitona.

–Zer dun tokia egotea, txiki?

–Beroa izerdi tanta batean sartzea?

–Hik uste?

–Eta hemen?

–Hemen, izerdi tanta bai, baina, berorik apenas. Begira iezaion puntu izoztuari...

–Orduan?

–Orduan zer, txiki?

Behin bururatu zitzaion teillatua teillatuepeko zuloan sartzea. Bururatu eta ahaztu egin zitzaion. Biak aldi berean ia. Hori bai, izerdi tanta teillatuepean gelditu zen. Zuloan. Bikoterik gabeko galtzerdietako baten barruan. Pianoa joz.

Batzuetan teillatua bizi da Sara, eta beste batzuetan teillatuepeko zuloan. Sara Norbait da, eta kito. Zergatik eta aitonari ere halako egun batean Norbait izatea bururatu zitzaiolako. Sara bere gustuko ipuinetako protagonista da eta teillatua bizi ez denean, eta teillatuepeko zuloan bizi ez denean, aitonaz gogoratzen da. Eta hori izaten da ia beti. Zergatik eta berak hala nahi izaten duelako. Eta kito. ■

# Enpresen #sarekohizkuntzak

EDURNE GONZALEZ

(EMUNEKO TEKNIKARIA ETA SARE SOZIALETAN ADITUA)

TWITTER: @EDUR\_GONZALEZ

**G**aur egun, enpresa eta erakunde askoren komunikazio kanal bihurtu dira sare sozialak. Enpresa eta erakunde horiek oraindik ez dakite nola jokatu behar duten sare sozialetan edo zein izan behako litzatekeen estrategia linguistiko egokiena, nahiz eta beste komunikazio kanal batzuetarako hizkuntza irizpideak zehaztuta eduki. EMUNeko lantalde bat honi erantzuten saiatu gara azken hilabeteetan #sarekohizkuntzak proiektuaren baitan.

Administrazioak gai honen inguruan hausnarketa egin du eta dagoeneko baditu irizpide batzuk zehaztuta *Eusko Jaurlaritzaren gizarte-sareetako erabileren eta estiloaren gidan*. Gainera, Administrazioaren kasuan legeak ere bide bat markatzen duela uste dugu. Enpresa pribatuetan ez dago lege edo araurik, eta beraien helburu komunikatiboak eta hartzaileak sarritan ez dituztenez oso ongi definituta, hizkuntza irizpideak zehazteko arazoak izaten dituzte.

Aukerak asko dira; enpresa bakoitzaren ezaugarriek ere baldintzatu egiten dute euren aukera, bezero mota, merkatua... EMUNek hainbat aditurengana jo zuen iritzi eske: Joxe Rojas, Luítxo Fernandez, Rober Gutierrez, Josu Bergara edo Joxe Aranzabal, esaterako. Iritzi horiek aztertuta, ezin esan jokatzeko modu bakarra gomendatu daitekeenik, beraz, enpresa bakoitzak bere hartzailea zer

nolako den kontuan hartuta, eta saldu nahi duen produktuari begira diseinatu beharko du bere komunikazio estrategia. Lan honen helburuetako bat esperientzia zehatzak ezagutzea ere izan zen, horrela Euskadiko Kutxaren (<http://www.mcc.es/language/eu-ES/EUS.aspx>) kasua aztertu da. Argi daukate euskarak lehentasuna duela bezeroari begirako komunikazioan eta kontu bakarrean euskara eta gaztelania erabiltzen dituzte, bai Twitterren baita Facebooken ere.

Deskontu.com Interneteko enpresa bat da, eta euskara besteengandik ezberdintzeko estrategia dela konturatu dira. Bezeroak eskertu egiten du euskarazko zerbitzua ematea, eta ondorioz, sare sozialetan euskara erabiltzen dute.

Ternuak, berriz, hiru hizkuntza erabiltzen ditu kontu bakarrean: euskara, gaztelania eta ingelesa. Hemengo identitatea mantenduz, munduarekin hitz egin daitekeela azaleratzen du esperientzia honek.

MUtelebistan euskara da hizkuntza nagusia, eta gehienetan, aurkezpenak eta iradokizunak euskaraz daude eginak, eta azpтитuluak gaztelaniaz eta ingelesez. Baina norbaitek beste horietako hizkuntza batean hitz egiten duenean, orduan azpтитuluak beste hizkuntza bietan jartzen dira. Horrela, edozeinek onartzeko moduko formula sortu dute, euskaraz ondo moldatzen direnentzat eta beraiu bertzen ez dutenentzat.

Sarean egindako hausnarketa horri segida emateko, apirilaren 17an #sarekohizkuntzak enpresetan jardunaldia egin genuen Garaia Berrikuntza Gunean, eta EMUNekook gako batzuk aurkeztu genituen enpresek sareko hizkuntza irizpideak definitzeko.

Uste dugu enpresek bezeroari bere hizkuntzan eman behar diotela informazioa. Euskal hiztunak diren bezero edo erabiltzaileekin euskaraz jardun beharko dute, eta sare sozialak bezeroekin harremanetan jartzeko beste kanal bat direnez, hauetan ere irizpideak zehaztu beharko ditu enpresak.

Enpresek Internetera salto egin aurretik, hizkuntzaren gaia hausnartu behar dute, sare sozialetan zertarako egon nahi duten zehaztu eta horren arabera komunikazio estrategia bat definitu. Koherentea izan behar du enpresaren Interneteko jardunak; argi eduki behar dute sarean esaten denak enpresaren identitatearekin zerikusia duela: azken baten lineaz kanpo, hau da, Internetetik kanpo, eurentzat euskara garrantzitsua bada, linean, Interneten, ere halaxe izan beharko da.

### Hizkuntza irizpideak definitu

Jarraian hizkuntza irizpideak definitzerakoan kontuan hartu beharreko gakoak zehazten dira:

- **Norabidea zehaztu:** hizkuntzarekiko konpromisoa badu enpresak, komu-



nikazio jarduna horren araberakoa izango da. Esaten denaz gain, nola esaten den garrantzitsua da. Hau da, mezuak euskaraz, gaztelaniaz edo elebitan zabaltzeak irudi bat emango du, edukian bertan azaltzen denaz gain. Hizkuntza aukerak berak irudi bat zabalduko du jarraitzaileen artean, bai enpresaz, baita bezeroekin izan nahi duen harremanaz ere.

- **Community managera:** sarean euskaraz egitea erabakiz gero, saregile-lanak egingo dituen pertsona euskalduna izatea ezinbestekoa da. Bestalde, enpresako *community managerak* euskarazko sare sozialen egoera ezagutu behar du, hau da, garrantzia izango du nork jarraitzen duen, adibidez, gure enpresa edo markak jarraitzen dituen kontu guztiak gaztelaniaz ari badira, gaztelaniazko komunitate batean egongo gara eta zaila izango da hor euskaraz jardutea.
- **Hartzailea zein den jakin:** ezinbestekoa da informazio hori ezagutzea. Horrek irizpideak zehaztea erraztuko du.
- **Sare sozialak:** Twitter, Facebook, Google+... bakoitza helburu batekin erabili daiteke eta bakoitzak aukera ezberdinak eskaintzen ditu. Twitter informazioa zabaltzeko egokiagoa da, eta Facebook iruzkinak egiteko. Google+sareak, aldiz, jarraitzaileak taldeka antolatzeak aukera ematen du.

- **Jarraipena egin:** baliteke hau izatea gakorik garrantzitsua. Sare sozialek berehalako feedbacka eskaintzen dute; beraz enpresak probak egin behar ditu, modu kontziente batean, jarraipena egin ahal izateko eta, horren arabera, beharrezko egokitzapenak egiteko.

Beste alde batetik, eta enpresak sarean euskaraz egin nahi duela kontuan hartuz, jarduteko aukera batzuk proposatu genituen #sarekohizkuntzak hausnarketan, hainbatetan irten den galderari erantzun nahian edo: kontu bat hizkuntza bakoitzarentzat edo hizkuntza guztiak kontu berean? Gure ustez, enpresak sare sozialetan duen jarduna oso zabala ez bada, euskara eta erdara kontu bakar batean uztartzeak ikusgarritasuna ematen dio euskarari. Aldiz, enpresak sare sozialetan duen jarduna oso zabala bada, hizkuntza bakoitzarentzat kontu bat erabiltzea proposatzen dugu.

Demagun kanal bakarrean jardutea erabakitzen duela enpresak, zein izango da irizpidea mezuak zabaltzerako orduan? Nola eman lehentasuna euskarari? Gure ustez, ez dago informazio guztia hizkuntza guztietan errepikatu beharrik, zenbait informazio hartzaile konkretu bati zuzenduta dago eta horren hizkuntzaren arabera egin dezakegu. Bestetik, informazioa errepikatzen badugu zein mezu zabaldu behar da lehenengo? Euskaraz-

koa primizia izan dadin, lehenengo euskaraz zabalduko dugu eta denbora batera erdarazkoa. Baina, bi mezuak aldi berean eman nahi baditugu, zabaldu lehenengo erdaraz eta ondoren euskaraz, horman euskarazkoa azal dadin aurrena.

Bideoak dira enpresek gaur egun erabiltzen duten beste medio bat. Horietarako MU telebistak erabiltzen duen irizpide berbera aplikatzea proposatzen dugu: bideoak euskaraz sortu eta ondoren azpizdatzi. Bideoan hitz egin behar duena ez bada euskalduna, bere hizkuntzan grabatu eta euskaraz azpizdatzi.

Bukatzeko, aurretik aipatutakoak bezain garrantzitsuak diren kontuan eduki beharreko bi gai aipatu nahi genituzke. Lehenengoa, hizkuntza kalitateari buruzkoa da; hizkuntza zuzena eta egokia erabiltzea beharrezkoa da. Erabilera desegokiak (ortografia akatsak, esaldien argitasun eza...) enpresaren irudiari kalte egiten diote. Bigarrena, enpresako pertsona estrategikoen ingurukoa da; enpresa edo erakundeek kontu korporatiboak zabaltzen dituzte, baina, askotan enpresako kideek parte hartzen dute horietan. Kolaboratzaile horiek edo erakundeeko pertsona estrategikoen ere hausnarketa egin beharko lukete sare sozialetan erabiltzen duten hizkuntzaren inguruan.

Informazio guztia: <http://www.lantalan.com/baliabideak-eta-tresnak/sarekohizkuntzak> ■

# Norenak dira Eliza Katolikoak erabiltzen dituen higiezinak?

## Eztabaida handia piztu da Nafarroan Elizaren ondarearen inguruan

JON ARIZKUN  
HIZKUNTZALARIA

**O**tsagabia edo Otsagi. Nafarroako ipar-ekialdeko udalerrria (Zaraitzu ibarra, Pirinioaldea). Aipagarri dira XIII. mendeko Muskildako Ama Birjina santutegia, Erdi Aroko San Joan Ebanjelariaren eliza (XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan eraberritua), Anduña ibaiaren gaineko harrizko zubi zaharra, XVI. mendeko harrizko gurutze plateretzkoa eta XVIII. mendeko etxe armarridunak.

Uxue. Nafarroako erdi-ekialdeko udalerrria (Erriberako merindadea), muino baten gainean dagoena. Aipagarri dira VIII.-IX. mendeko jatorri duen Andre Mariaren eliza erromanikoa eta han gordetzen den Ama Birjina Uxuekoaren irudia. XIII. mendeko San Migel ermita gotikoaren hondakinak, Erdi Aroko jatorria duen Ama Birjina Zuriaren ermita eta herriko etxe zahar armarridunak.

Ziritza. Nafarroako erdialdeko udalerrria. Aipagarri dira Erdi Aroko jatorria duen San Migel parroki-eliza (XVI. mendean berritua, XVII. mendeko erretaula nagusi erromanista), Etxauriko talaiaren gainean den Ama Birjina Oko ermita, XVI. mendeko Cabo de Armeria jauregia eta XVIII. mendeko etxe armarridunak.

Muskildako santutegia Otsagin, Andre Mariaren eliza erromanikoa Uxuen, San

Migel Ziritzan... entziklopediaren arabera kontaturik. Alabaina, nork eraiki zituen, nork ordaindu lanak, nork erabili ditu, norena da ondarea? Mendeak igaro dira bakean, baina bat-batean piztu da haserrea, Nafarroan Elizaren agintariak guztion ondasun higiezinak izan den hori erregistrora jo eta beren izenean jartzen hasi direnean...

### 1998ko Hipoteka Legea abiapuntu

1998an Espainiako Gobernuak Hipoteka Legearen 206. artikulua berritu zuen, aukera eman zion Elizari gurtzeko diren guneak bere izenean inskribatzeko. “Estatuak, Probintziak, Udalerrriak eta Zuzenbide Publikoko Korporazioek edo haren egitura politikoko parte diren Zerbitzu Eratuek eta Eliza Katolikoarenek, jabetza-titulu idatzirik ez dutenean, beraien dagozkien higiezinak inskribatu ahal izango dituzte aipatu diren ondasunen administrazioa bere kargu izan duen funtzionarioaren ziurtagiri egokiaren bitartez, non bereganatze-titulua edo nola bereganatuak izan diren adieraziko den”.

Legea urte hartako irailean indarrean sartu zenetik, Tuterako eta Iruñeko artzapezpikuak hainbat ondasun inskribatzeari ekin zion, eta 1998tik 2007ra bitartean 1.087 higiezin inskribatu zituen Eliza Katolikoak: 651 parrokia; 191 er-

mita; 9 basilika; 42 etxe; 26 lokal, biltegi eta garaje; 2 eliz atari; 8 hilerrri; 107 lursail; 38 larre, garo-leku eta belardi; 12 mahasti, pinudi, olibadi eta arboladi; eta frontoi bat. Elizak isilpean inskribatu zituen ondasunok bere izenean eta urte askoan ez zen istilurik ez zaratarik izan. 2007an piztu zen sua, Tafallan, herriko bizilagun bat erregistrora ohiko gestioaren bat egitera jo eta ikusi zuenean Elizak 2006ko abuztuaren 21ean herriko Santa Maria parrokia bere izenean inskribatu zuela. Laster konturatu ziren, jakin zuten, inguruko eliza guztiak inskribatu berriak zituela Nafarroako Eliza Katolikoak: Tafallako Santa Maria parrokia ez ezik, baita San Pedro ere; era berean, Erriberriko San Pedro, Uxueko Santa Maria Erreal, Artaxoako Zerkoko San Saturnino... Agoizko Jabetza Erregistroan hirurehun inskribatze baino gehiago eginak zituen Elizak oso denbora gutxian.

Eztabaida hasi zen, haserrea eta sokatira: norenak dira parrokiak, ermitak, basilikak, eliz atariak, hilerrriak eta ordu arte Elizak inskribatuak zituen higiezinak oro? Iruñeko eta Tuterako artzapezpikua ziur da bereak dituela. Herrian herriko udalek herriarenak direla diote. Uharte, Altsasu, Berriozar, Burlata, Puiu, Etxauri, Leitza, Garisoain, Lerga, Irurtzun, Etxarri Aranatz, Leatxe, Oibar, Artzi-



bar, Zirauki, Zizur Nagusia, Orkoien eta Aranguren udalerrietako udalek, esaterako, diote Elizak bere izenean inskribatu dituen ondasunak herriak egin zituela, herriak ordaindu zituela, eta, ondorioz, herriarenak direla. Ziurtasun horren defentsan elkartu eta Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma herri ekimena osatu zuten arestian aipatu udalek.

### Nor baino nor, ondasun higiezinak Erregistroan inskribatzen

Nafarroako Elizak, erran nahi baita, Iruñeko eta Tuterako artzapezpikuak, ez du ulertzen eztabaida, eta elizbarrutiaren ordezkariak behin eta berriz eta askotan adierazi dutenez, herri kristauak ez beste inork eraiki zituen eliza, baseliza eta gainerakoak. Haien esanetan, elizak tenplu kristauak dira, herri kristauak herri kristauarentzat eraikiak meza santua ospatu ez beste ezertarako: ez erabilera zibila

egiteko, ez ikastaroak eskaintzeko, ez homosexualen arteko ezkontzak egiteko...

Higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatzeak segurtasun juridikoa ematen dio Elizari –haren ordezkarien iritziz, betiere–, berea duena bere izenean jartzen ari da, beraz, Eliza, zalantzarik ez baitu, ziur baita inskribatzen ari dena berea duela. Ber gisan, herriak ere ziur dira udalak inskribatzen ari diren jabegoak beraiei dagozkiela. Ziritzan, esaterako, eliza ez ezik eskolak, hilerria, apaizetxea, maisuaren etxea, herriko espetxea, atrioa, lursail bat eta udaletxeko parte bat ere inskribatu ditu Elizak. Bederatzi higiezin, 70 biztanleko herrian.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak ere baditu arrazoiak, artiboek ematen dizkietenak. Cascanteko udalak ez beste inork erabaki zuen Nuestra Señora del Romero basilika nagusia eraikitzea 1684ko ekainaren hamaikan. Ordaindu ere, herriak jarri zituen hura

egin ahal izateko behar izan ziren 12.000 dukatak. Iruñeko San Fermin kapera egitea ere bertako udalak erabaki zuen, 1696ko uztailearen hamaikan. Lanak ordaindu ahal izateko bertan behera utzi behar izan zituzten Sanferminetako zezenketak. Halaber, Tafallako Udalak erabaki zuen herriko Santa Maria eliza jasotzea 1538an...

Bateko apezpikutzatza, besteko plataforma, jabetza-titulurik ez zuten eta Jabetza Erregistroan inskribatu gabe zeuden higiezinak inskribatzeko lasterketa eroa hasi zen 2007an, nork lehenago inskribatuko ordu arte guztiona izandako ondarea.

*Garisoain. Gesalatz udalerriko herria (Lizarralde, Nafarroa). 23 biztanle. Aipagarria da XVI. mendeko Andre Mariaren parrokia eliza.*

2007an Elizak 1.087 higiezin bere izenean inskribatuak zituela jabeturik, lan berari lotu zitzaizkion herri asko. Gari-




soain, besteak beste. Horrela, 2008an udalak erregistroan inskribatu zuen herriko Pilarreko Amaren basiliza. Eliza ez zen ados izan, eta udalaren kontrako salaketa jarri zuen. Epaiketa baino lehen, udala artzapezpikuarekin akordioa lortzen saiatu zen, esanez basiliza herriaren izenean jarriagatik ere, Elizak ohiko gurtu kristaurako erabili ahal izango zuela. Elizak ez zuen proposamena onartu. 2010ean epaiketa Lizarrako Auzitegian egin zelarik, epaileak Udalari eman zion arrazoia. Garisoaingo Udalak basiliza zaharberritzeko egindako gastuen ordainagiriak aurkeztu zituen froga, ermita herriarena dela erakusteko. Epaileak herriari eman ziolarik arrazoia, helegitea jarri zuen Nafarroako Elizak. Garisoaingo udalaren eta Artzapezpikuaren arteko bigarren epaiketa egin zen Nafarroako Probintzia Auzitegian, Udalari emanek arrazoia, berriz.

### Eliza Jabetza Erregistroan

Eliza Katolikoa nazioarteko erakundea da eta, izaeraz, Estatu. Vatikanoko Hiriko Estatuaren izena erabili izan du zenbait itun eta konkordatutan. Espainiako Hipoteka Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluek erakunde gisa hartzen dituzte bai Eliza eta bai haren beste entitateak ere, izan institutuak, izan elkarteak, izan gainerrakoa. Ondorioz, Elizak era guztietako ondasunak Erregistroan inskribatzeko eskubidea du. Are gehiago, Estatuaren erakunde publikoak eta Eliza Katolikoa maila berean dira ondasun higiezin baten gaineko eskubidearen titulua erregistroan jaso gabe egon eta inskribatu nahi denean. Higiezin bat Jabetza Erregistroan jaso gabe egon eta lehen aldiz inskribatu nahi bada, Hipoteka Legeko 199. artikuluari kasu egin beharra dago. Haren arabera, hiru modutara egin liteke ondasun baten inskribatzea: edukitza txosten

bidez, erosketa titulu publikoaren bidez edota "206. artikulua aipura dakarren ziurtagiriaren bidez, bertan adierazten diren kasuetan besterik ez". Gogoan har gorago ezarri dugun 206. artikulua, non esaten baita apezpikuaren ziurtagiria baliagarri dela higiezin inskribatzeko. Hortaz, Estuari dagozkion funtzioak betez, gisako ziurtagiriak emateko aukera berdina eman zaio diozesi buruari. Dena dela, Elizaren arduradun horrek halako higiezin baten jabetza-eskubidea zergatik duen Elizak arrazoitu behar du, eta, ziurtagiriak ez badu behar besteko funtsik, nekez jasoko du titulu baten balioa. Hala ere, higiezin Jabetza Erregistroan inork baino lehenago inskribatzeak berealdiko garrantzia du, titulu eratzailak lehentasuna izango baitu Erregistroan sartzen den dataren arabera. Lehen inskribatzen duenak legearen onurak jasoko ditu, eta lehenak higiezin bat inskribatu eta gero,



bigarrenak erregistrora sartzeko ateko itxita izango ditu, lehenengo inskribatze haren kontra jo eta ezereztan ez duen bi-tartean, behintzat.

Hortik etorri da, beraz, oraingo lehia, esan nahi baita, erretore-etxeak, elizak, basilizak, lurrak, hilerriak eta gaine-rakoak Jabetza Erregistroan inskribatze-ko lasterketa. ■

“Higiezinak Eliza Katolikoaren esku izan dira. Beste kontu bat da higiezinaren gaineko edukitza hori zergatik duen eta nola baliatu duen (...). Hasteko, eraiki beharreko higiezinaren gain erabakiak nork hartu dituen (proiektua) eta eraikina bera nola gauzatu den (dirua eta lana). Ondoren, higiezinaren aprobetxamendua nork zuzendu duen, bereziki ea eraikinaren kudeaketa egin izan duen patronaturik baden edo ez, eta fruitu zibilak (errentak) nork jaso dituen; aldi berean, jabeari dagozkion erabilerak burutzeko erabakiak zertarako hartu diren (herri-bilerak egiteko, herriko dokumentazioa jasotzeko, jolastoki izateko). Gauza oro bezala, erabileraren ondorioz sortutako ajeak konpontzeko ardura nork izan duen (...). Gainera, bere kasuan, jabetzari dagozkion zergak ordaintzeko ardura nork hartu duen (...). Kasuak banan-banan aztertu behar dira ezinbestez. Baina bada zuzenbideko printzipio orokor bat gogora ekarri beharrekoa: ezeinek ez ditu ordaintzen besteren gastuak (...). Dirua ematen denean eta lana jartzen denean, eragiketa horren kausa erabakigarria da: nork berea duen eskubidearen ahalmenak baliatuz egiten da, edo beste norbaiten aldeko doako eskuzabaltasun hutsagatik egin da”.

(Mikel Mari Karrera, *Uztaro* 71, 45.-68. or.)

# Euskaldunen arlo pertsonal eta intimoa: euskaldunon hizkuntza komunitatea

JULEN AREXOLALEIBA

HUHEZIKO IRAKASLEA ETA SORGUNEA IKERTEGIKO KIDEA

**I**zenburuko puntua jarri didate artikulua osatzeko. 2011ko abenduan, HUHEZIn, Eralan-en topaketa-saioretan (soziolinguistika klusterra) eman nuen hitzaldiaren haritik datoz, beraz, honako gogoetak.

Ez dira, baina, nire gogoetak. Aspaldi dabilta ibili gure artean. Nik orain eta hemen ispiluarena baino ez diet egiten, neure egin: berriro ere gogora ekarri.

Euskara

Euskara

Euskara ez du buruak irauarazi

Bihotzak aldiz

Bakarrik

Ezin du gehiago

Gehiago

Gehiago

Horixe Artzeren gogoeta bat aspalditik dabilkiguna inguruan. Eta ez zaio arrazoirik falta, falta ez zaionez. Baina kontrakoa ez da hobea: euskalduna jatorriz, buruz, aburuz... eta, aldiz, erdaltzalea praktikan! Euskaltzaleak euskaldunak baino gehiago izango gara, gogoz eta buruz, nahi bada; baina, izateko eta ekiteko gogoz, bihotzez, horietako zenbat? Alde egotea hobeto, jakina!, baina

alde egote hutsarenak onenak emanda dauzka, ezin du gehiago!

“Niretzat euskara euskaldunen komunitatea da; euskalduna komunitate horri buruz positiboki posizionatzen dena” zioskun duela gutxi, bestalde, aldizkari honen orrietatik bertatik, Joxe Azurmendik. Berezko sen landua, benetakotasuna darie hitzei. Posizionamenduen intentsitatea izango da, beraz, argitu beharrekoa. Alde egote hutsak eta, areago, euskaraz egite hutsak berak ere muga argiak baitauzka bestelako pizgarririk, elikagai sinbolikorik, gaineratu ezean egiten dugun horri. Zer dira, baina, pizgarriak eta elikagai sinbolikoak? Euskaldunok, gertutasunean, euskaldunon hizkuntza komunitatearen parte sentiarazten gaituzten taupada, igurtzi, ekimen horiek guztiak; gutako bakoitzaren intimitatea elikatzen dituzten horiek. Izan ere, euskaraz egin ahal izateak berak bakarrik, ikastetxeetan euskaraz irakasteak berak bakarrik, produktuak euskaraz ekoizte hutsak berak bakarrik... ez baitakarte beraiekin batera, behar bestean, hizkuntza-komunitatea elikatzen jarraitzeko hautu kontzientea. Auzi (est) etiko-politikoak da, beraz, zergatik egiten dugun egiten dugun hori.

Hala bazen ere lehen areago da orain hemen.

Euskararen iraupena

“zenbat”en eskuetan bainoago

“nolako” euskaldunengan dago

Hortxe Joxanton Artzeren beste poematxo gogoangarri bat. Jakintza-eremu askotako irakaspenak biltzen ditu poetak zazpi hitz elkarren segidan jarrita, hurrenkera horretantxe asmatuta. Alegia, gaurko egunez eta aurrera begira ez dela nahikoa euskara jakitearekin nola edo hala, “beharrezkoa” denean bakarrik egin ahal izatearekin. Horiek guztiak ondo daude, jakina!, baina euskaldun eleaniztun gehientsuenak halakoak izanez gero, euskarak ez dauka atarramendu onik. Euskarak taldetasuna behar du, hitzunikiko osagarritasuna. Horixe da, hain justu, hizkuntza-komunitatea: norbanakoen izateko eta ekiteko gogoaren bitartekaria, taldetasuna damaiguna.

Euskararen eta hiztun bakoitzaren arteko osagarritasuna? Bai, norberak nola bizi dugun arlo intimo eta pertsonal hori. Zergatik jokatzen dugun jokatzen dugun moduan arlo publiko eta pribatuetan hizkuntzekin, ze garrantzia ematen diogun euskaraz egin nahi izateari, alegia. Praktikan erabat alde batera uzte-

ko modukoa den hizkuntza bat zergatik ez dugun alde batera utzi nahi. Horrek guztiak badauka zer ikusia, nire ustez, hizkuntza ekologiarekin. Zein da pertsona bakoitzaren inpaktu ekolinguistikoa euskal komunitatea sortzen eta birsortzen jarraitu ahal izateko? Non dago norbera eta zein du hurrengo urratsa, egin ahal izatek egin nahi izatera doan bide horretan? Beti gaude martxan, norabidearen batean. Eta “pazientzia erre aurretik behar duguna” aholkatzen zigun Xabier Amuritzak, euskara “ederra baino zerbait gehiago” izan dadin nahi dugunoi, euskaldunon hizkuntza komunitatearen partaide izan nahi dugunoi. Autoestimua, beraz, badauka zer ikusia inpaktu ekolinguistikoarekin, badaukanez.

Duela 25 urte argitaratu zuen Jose Mari Sánchez Carrión “Txepetx”ek, *Un futuro para nuestro pasado* liburua. Zilarrezko ezteien ospakizunik, apenas sumatzen den! Hiztunen eta hizkuntzaren arteko osagarritasunaz, hizkuntza-komunitatearen bitartekaritaz, honako eta beste edonorako baliagarriak diren axiomak zehaztu zituen. Orditik gogoan iltzatuta geratu zaizkigun batzuk, honakoak:

1. Hiztunen **behar pertsonal** bat izango da euskararen aurrerabidea edo bestela ez da izango.
2. Euskaldunon hizkuntza-komunitatearen **erantzukizun kolektiboa** izaten jarraituko du euskararen aurrerabideak edo bestela ez du euskarak aurrerabiderik izango, bost urtean behingo datu demolinguistikoek diotena diotela.

3. Behar pertsonal horiek eta erantzukizun kolektibo horiek elikatzen dute munduan zehar **hizkuntza ekologiarekin helburu ederra**. Geuretik ari gara horietan guztietan, jasotzen eta ematen. Auzi (est)etiko-politiko da, bitala ere badelako, ala? Bitala ez bada, izan ere, alferrikakoak baitira estetika, etika eta politika guztiak.

Eleaniztun euskaldunok, nahita edota oharkabean bada ere, beraz, aukeratu behar gaude aldiro-aldi ro zein hizkuntza-komunitateri zerbitzatu. Euskal komunitateari zerbitzatu nahi izateak etengabe bide berriak urratzera garamatza; bestela dabilta, euskaraz jakinagatik ere gehientsuenetan erdal komunitateen zerbitzura dihardutenak. Delako euskaldunon hizkuntza-komunitate horrek, ordea, baditu bere baitan makina bat komunitate txiki. Hasi norberaren intimitateko eremuetan, jarraitu laneakoetan edota aisialdikoetan, auzo-herri nazioari dagozkienetan... tokian tokiko hiztun-elkartez osatzen da euskaldunon hizkuntza-komunitatearen osotasuna. Badauzka komunitate oso horrek iragan hurbileko transbertsalizazio politikoak erasandakoak, gainditze bidean diruditenak, baina hortxe dirautenak oraindik orain. Aje historikoez gain, badauzka komunitate oso horrek makinatxo bat pitzadura elkarren arteko osagarritasuna aurkitzeari dagozkienetan. Pitzadurak eta arrakalak ikastetxeen artean, eskulturgien artean, euskarazko prentsaren baitan hegemonia lortzeko moduetan, zerbitzu-enpresen arteko lehiakortasun amaigabea, etab. Duela hamarkada

batzuk pentsaezina zen kobratzea euskararen alde aritzeagatik; dena egiten zen, egitekotan, militantzia delakoagatik. Aldatu dira kontuak, aldatu direnez; baina badauzkagu oraindik ere, inon izatekotan, makinatxo bat eremu eusteko eta ereiten jarraitzeko. Eutsi ahal izateko, ordea, ereiten jarraitu behar dugu; bestela, joandako urak ez baitu errotarik mugiaraziko!

Eustea eta ereitea, norbanakoaren eta euskararen arteko osagarritasuna, hizkuntza-komunitatearen bitartekaritza, buruaren eta bihotzaren arteko lotura, norbanakoon inpaktu ekolinguistikoa, eleaniztasunaren nolakotasunaren garrantzia, hitz-unelkateen arteko osagarritasuna, etab. Aipatu besterik egin ditugu gai horiek guztiak artikuluan zehar. Eta berriro ere, kasu honetan Maialen Lujanbio bertsolariak, argiago esanda dauzka, hitz neurtuz gainera, beste batzuk hitz lauz esan ezin ditugunak nahi bezain argi. Jar diezaiedan ispilua txapeldun gertatu zeneko hartan kantatu zituenei:

(...)

Euskal Herriko lau ertzetara itzuliko gara gabaz eta hemen bildu dan indarrak grinaz eta poz taupadaz herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz

Halaxe, bada, uztartzen dira euskaldunon arlo pertsonalak eta intimoak hizkuntza komunitatearekin: taldeatasunean, benetakotasunean. ■

# Estrategien garaia

PELLO ESNAL

**A**purka-apurka ari gara ohartzen zer esan nahi zuen Luis Villasantek, honako hitz hauek idatzi zituenean 1988an, artean euskaltzainburu zela:

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Ordurako, hogeit urte bazituen euskara batuak. Euskaltzaindiak finkatuak edo baturako bidean ipiniak zituen, banan-banan, Mitxelenak Arantzazuko txostenean (1968) eskatutako lau osagai: 1) idazkera edo ortografia, 2) antzinako euskal hitzen formak, 3) hitz berrien eraketa eta maileguen forma, 4) morfologia: izena eta aditza. Bosgarrena falta zen: joskera.



Horren harira, Mitxelenak eta Villasantek pentsatua omen zeukaten Euskaltzaindiak biltzar bat antolatzea joskerari buruz. Baina, dena delakoagatik, euskal gramatika egitean jarri zituen akademiak indarrak. Gaur, eskueran dugu *Euskal Gramatika Lehen Urratsak* osoa.

Pixkana-pixkana joan gara geureganatzen lan bikain hori eta antzekoak, beti ere joskera lantzen jarraituz. Eta ohartu gara zer bi uste oker eta gaizto dauden gure artean zabaldua, euskal gramatikaz: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, nahikoa dela arau gramatikalak betetzea.

Ohartu gara, era berean, zer bi arazok oztopatzen duten euskal testuen irakurgarritasuna: atzerakargak eta pausaldiak markatzeko zailtasunak. Eta ikasi dugu, horiekin borrokan, nahitaezkoa izanik ere, nahikoa ez dela arau gramatikalak betetzea. Agian, esperantza handiegiak genituen gramatikan.

Beste urrats bat egitea gelditzen zaigu: estrategiak lantzea.

Izan ere, hizkuntzaren erabileran, dena ez da arau eta lege, estu nahiz lasai. Behin arau gramatikalak betez gero, eremu handi bat zabaltzen zaio hiztunari: estrategia.

Pilotari onaren antza du hizkuntza-erabiltzaile onak. Pilotari onak frontoi osoa du bere. Arau gutxi batzuk beteta, behin eta berriz hartzen ditu erabakiak: luze ala motz atera pilota, botera jo ala bolean sartu... Erabaki onak hartzen dituen da pilotari ona: pilotari estrategikoa. Berdin: behin gramatika betez gero, erabaki onak hartzen dituen da hizkuntza-erabiltzaile ona.

Hain zuzen, azken urteotan, estrategiak plazaratzen saiatu da Euskaltzaindiaren Corpus batzordea, joskera lantzea helburu. Lehenik, 2008an, *Testu-antolatzaileak*. Erabilera estrategikoa argitaratu zuen; eta oraintsu, *Hitz-ordena*. Erabilera estrategikoa.

Bi liburuetan, adibide ugari azaltzen da nola baliu daitezkeen estrategiak joskera eratzen. Hona hemen hiru, joskeraren zenbait elementuri aplikatuta.

Xabier Leterena da lehenengoa (geuk nabarmenduak dira testu-antolatzaileak):

Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez poztzen naiz. Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri **bada ere**, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan **baitzitekeen**.

Testu-antolatzaileak esaldien atzean joateak zailtzen du irakurketa. Horiek (eta aditza) aurreratuz, erraz daiteke.

**Izan ere, nahiz eta** Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea



alde batetik penagarri den, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, are penagarriago eta minberagarriago izan zitekeen handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria.

Itzulpena da bigarren adibidea: euskal gotzainen 1998ko idatzi bat.

Behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, Piztuerako Pazkoa ospatzean. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezere eta inoren esklabo izan gabe. Lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Esaldiz esaldi dago egina itzulpena, kontuan izan gabe nola zegoen egituratua jatorrizkoa: mintzagaia buruan duela eta horrekin lotuz esaldi bakoitzaren hasiera.

**Celebrar la Pascua de la Resurrección** es mirar con el corazón abierto de par en par a la vida eterna esperada como la vida definitiva y verdadera. Es reconocer el amor inmenso de Dios que nos asocia a su vida espiritual y a su gloria eterna. Es sentirse mayor y más importante que todas las cosas de este mundo. Es recuperar la libertad para usar de todo lo que hay en el mundo con sabiduría, sin ser esclavo de nada ni de nadie. Es recibir el don de ayudar a vivir a los demás en el gozo anticipado de la comunión universal.

Jatorrizkoaren egituraren harira, honela itzul zitekeen egokiago.

**Piztuerako Pazkoa ospatzean**, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik. **Eta** Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. **Eta** mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. **Eta** munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezere eta inoren esklabo izan gabe. **Eta** lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Itzulpen ausartagoa ere egin zitekeen, galdegaiaren araua bete gabe. Izan ere, galdegaiaren araua ez da arau gramatikala.

Piztuerako Pazkoa ospatzea da begira jartzea, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. **Da** aitortzea Jainkoaren neurrigabeko maitasuna; Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. **Da** sentitzea mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago. **Da** berreskuratzea munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna, ezere eta inoren esklabo izan gabe. **Da** hartzea lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Hirugarren adibidea, berriz, Euskararen Aholku Batzordearena da. Hau ere itzulpena eta ulergaitza.

Euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkari ez osaturiko Euskararen Aholku Batzorde honek, bere aurreko guztiek bezala, ahalegin handia egin du euskara guztion ondasuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin.

Itzulpenak ez zuen kontuan izan tartekia dela erlatiboazko esaldia.

Este Consejo Asesor del Euskera, *formado por personas de diversas ideologías y profesiones que representan a todos los ámbitos territoriales de dicha lengua*, ha realizado un gran esfuerzo, al igual que los consejos que le antecedieron, para que el euskera se considere un bien común y como tal sea conservado, apoyado y fortalecido.

Itzultzaileak eskura zuen, besteak beste, klasikoek maiz erabilitako estrategia.

Euskararen Aholku Batzorde honek, zeina osatua baita euskararen lur-eremu guztietako eta pentsaera eta lanbide askotako ordezkari, ahalegin handia egin du, aurreko guztiak bezala, euskara guztion ondasuntzat hartua, zaindua, lagundua eta biziberritua izan dadin.

Hiru adibide dira, oraindik eginkizun dugun bidearen erakusgarri. Eginkizunaz, ozen bezain zuzen dio Andu Lertxundik:

Indarrrik banu, pozik aldatuko nuke euskal perpausa. Arindu esan nahi dut. Agian, irauli ere esan beharko nuke. Esaldiak eraman behar ninduke ni, eta ez nik bera. Nire zerbitzuan behar luke egon, ez nuke denbora guztian zalantzaz ibili behar hizkuntza hegemonikoetako idazleak lasai peto dabiltzan bideetan. Esaldiak bizkortu, lexikoa garbitu, arinarin ibili perpausetik perpausera, esaldien arteko loturak freskatu...

Bide luzea egiten ari gara euskal joskerara finkatzen eta trenpatzen. Asko zor diogu gramatikari. Estrategien garaian gaude. ■

## GUTUN-AZALAK

INAXIO LOPEZ DE ARANA  
IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA



**A**uzoan jende guztiak zekien, haren amak izan ezik. Jende guztiak zekien Josebak Izaskun atsegin zuela. Mutilak, laño xamarra izanik, bere lagun guztiei behin baino gehiagotan esana zien Izaskun moduko emakume gutxi zegoela munduan eta haren ederra irabazten saiatuko zela. Eta horrelako kontuak nonahiko kontakatuen bazka gozo izaten direnez, laster zabaldu zen auzokide guztien artera Josebaren maiteminarena. Hala ere, Izaskunek ezer zehatzik jakin aurretik, bazuen horren susmoa: unibertsitateko idazkaritzan egiten zuen lan, eta bolada luze batean, egunero, Joseba joaten zitzaion unibertsitatean hasteko gutun-azal baten eskean. Internet bidez egin zitekeela jakin arren, ordenagailuetarako ez zela jaio, paperen artean ez zela moldatzen, bulego-kontuuetarako ez zuela balio, hau eta beste... beti aitzakiaren bat bilatzen zuen Izaskunen aurrean jarri eta behar ez zuen gutun-azal hura eskatzeko. Neska mamala ez zenez, “hau ez da normala”, pentsatu zuen bere artean. Baina sotiltasuna bezainbestekoa zuen herabetitasuna Josebak, eta inoiz ez zitzaion ausartzen ezertxo ere esaten, lotsa eta beldurraren artean katramilaturik.

Hiru bat astean egunero-egunero joan zen Joseba unibertsitate, eta egunero-egunero unibertsitatean hasteko gutun-azala eskuetan zeukala ateratzen zen bertatik. “Hi haiz hi koldarra!”, esanez

zigortzen zuen bere burua Josebak, idazkaritzako atalasea atzean utzitakoan. Eta beti biharamunean indarberiturik eta ausardiaz beterik sartzen zen gaztea idazkaritzan, baina Izaskun ikustez bat kikildu eta “unibertsitatean hasteko gutun-azala” lardaskatzen baizik ez zuen asmatzen gizajoak, ahalkeak hartaturik.

Baina egun batean ez zen azaldu Joseba unibertsitate, eta hurrengoan ere ez, ez eta hurrengoan ere... Antza denez, aspalditik gaitz larri batek jota zegoen, eta sendagileek ahaleginak eta bi egin arren, ezin izan zioten bizitza gehiago luzatu. Hil egin zen, beraz, mutil gaztea. Bere gaixotasunaren berri, Izaskunenganako maitasunarena ez bezala, haren ingurukoek baizik ez zekiten.

Egunak joan, egunak etorri, Josebaren eguneroko bisitaldien huts-mina sentitzen hasi zen Izaskun. “Non sartu ote da mutil lotsati hura?” –ziotsan bere buruari, Josebaren heriotzaren berri artean ez zuelarik. Egunen joanean, Izaskunen jakin-mina areagotuz joan zen. Gehiago ezin eutsirik, Josebaren etxera joatea erabaki zuen, haren nondik norakoa zuzenean jakiteko asmoz (bati eta besteari galdetuta jakin zuen non bizi zen). Joseba bizirik zen bitartean ama alargunarekin bizi zen; horregatik, Izaskunek txirrina jo zuenean, ama atera zen leihora. Igotzeko esan zion, etxe hartan bere semearen lagun guztiak ongi etorriak zirela gaineratuz. Negar-zotinka azaldu zion bere semea hil egin zela eta hainbestekoa

zuela bihotz-mina, oraindik ez baitzuen kemenik bildu haren logelan sartzeko. Izaskun ere bihotza tarraturik geratu zen, eta buru-makur eta negarra begian egin zuen bulegorantz, egun hartan jende gutxi joango zitzaion itxaropenez, Josebaren heriotzarenak gogoia guttiz zapuzturik utzi zion eta.

Bizkitartean, Izaskunen bisitaldiak adoreturik nonbait, ama Josebaren logelan sartu zen, eta han zer aurkituko, eta gutun-azal mordo bat, bazter guztietan paratuak: apaletan, ohe azpian, ohe gainean, armairuan, mesanotxeko tiraderetan... ohe barruan ez beste leku guztietan kasik. Ezin zuen sinetsi amak. “Zer dela-eta hainbeste gutun-azal? Eta denak igual-igualak dira, gainera”, pentsatu zuen. Gutun-azalak hartu bezalaxe zeuden, batere tolesdurarik edo zimurrik gabe. “Haien beharrik ez bazuen, zertarako eskuratu zituen ba?”. Azken galdera horrek kitzikaturik, gutun-azal bat irekitzea erabaki zuen, eta hor, unibertsitatean hasteko inprimakien artean, gutun-azal txikiago bat aurkitu zuen, eta gutun-azal txikiaren barruan txartel bat, honela zioena: “Kafe bat hartu nahi nuke zurekin, hobeto ezagut dezagun elkar. Nahi duzunean, Izaskun.”

Txartela irakurrita, ama harri eta zur geratu zen, eta bere harridura areago handitu zen gutun-azal guztietan horrelako txartel bana zegoela ohartuz joan zen neurrian. ■

# “Garunarentzat eraginkorrago duzu oinez ibiltzea sudokuak egitea baino”

MIEL A. ELUSTONDO

IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA

**N**europsikologoa da Javier Tirapu Ustarroz (Leitza, 1961). Neurozientzia Klinikoaren Saria jaso du udaberrian, lobulu frontalaren inguruan eginak dituen azterketen harira. Lan handia eginga da garuna kaltetu duten gaixoak artatzen eta, egun, Nafarroako Ospitale Gunean ari da lanean, Birgaitze Neurologiko atalean. Argibide Fundazioko kide da eta, besteak beste, Neuropsikologia eta Neurologia Konduktual irakasle estatuko eta Iberoamerikako hainbat unibertsitatetako masterretan. Neurozientzia duelarik lan arlo, artikulu eta argitalpen sorta handia publikatu du, zientziaren dibulgazioa helburu.



**Neuropsikologia Klinikoaren Partzuergoaren saria jaso duzu, neuropsikologiari berari egin dizkiozun ekarpenengatik, oro har, eta lobulu frontalaren gainean eginak dituzun ikerketengatik, bereziki.**

Lobulu frontala, edo kortex prefrontala, bai, bekokiaren atzean dagoen garunaren aurreko alde hori. Urteak daramatzagu esperientzia klinikotik garun atal hori aztertzen. Esperientzia klinikotik, diot, gure lana gaixoak artatzea delako. Garunak egiten dituen funtzioetarik zein eta zein gauzatzen diren kortex prefronta-

lean aztertu dugu; erran nahi baita, funtzio exekutiboak. Izena ponpoxo xamarra bada ere, egoera berri baten aurrean, harentzako soluziorik ez duzun batean, garunak soluzioa nola asmatzen duen azaltzen saiatu gara gu.

**Zergatik, justuki, garun-atal hori? Kortex edo lobulu prefrontala, alegia.**

Garunaren ikerketetan, gauza jakina zen lehendik, adibidez, lobulu okzipitala –hau da, garondoa–, ikus-pertzepzioaz arduratzen dela. Garondoarekin ikusten dugu: begiak jaso duen irudia garondoa

proiektatzen da, eta ikusten dugu. Gauza jakina zen lehendik hizkuntzaren eremua ezkerreko belarriaren gainean dagoela, gutxi gorabehera. Gauza jakina zen lehendik aurpegiak ezagutzeko ahalmena eskuineko belarriaren atzean dagoela, eta musika gozatzekoa ere garunaren eskuin aldean dugula... Baina duela urte batzuk arte ez dugu jakin zertarako genuen kortex prefrontala. Urte askoan –iragan mendeko 40ko eta 50eko hamarkadako kontuak dira– neurozirujauak gaixoaren kortex prefrontala kaltetu, eta zioen gaixoak ez zuela aldaketarik erakusten. Alegia, kortex horrek ez zuela ezertarako balio. Neurozirujauak hori esanagatik ere, ordea, gaixo hura artatzen zuten erizain eta senideek kontrakoa zioten: alegia, gaixoa zuzen arrazoitzeko gai zela esaten zuten, baina erabakiak hartzeko zailtasun handiak zituela, edo okerreko erabakiak hartzen zituela, haur bihurtu zela, zirtolari, ezesatekoak esaten zituela, sexu desinhibizioa zuela, besteren azalean jartzeko ezintasuna, egozentriko huts bihurtu zela... Hortik etorri zen garunaren alderdi hau aztertzea.

### Zer ekarri du azterketa horrek?

Adibidez, konturatu ginen, bai espeziearen eboluzioaren ikuspegitik, bai gizabakoaren eboluzioarenetik ere, atal hauxe garatzen dela beranten. Zona okzipitala, esaterako, jaio ordukoxe hasten da garatzen, eta sei hilabetetan garatua da guttiz. Kortex prefrontalaren heltzea, aldiz, hogeita hiru urtetan amaitzen da. Oso berandu, beraz. Eta, izan, zona horrextan dago gu, espezie garen heinean, giza-kiago egiten gaituena.

### Funtzio exekutiboek ari zara...

Horixe. Egoera berriak modu egokitu batean konpontzeko ahalmenaz. Finean, garunaren egitekoa ez da biziraupena –eta biziraupenaren kalitatea– bermatzea besterik. Horretarako, ezinbestekoa da egoera berriei aurrea hartzea. Aurrea hartuz gero, soluzioak izango dituzu. Funtzio exekutiboak. Izen ponpoxoa, nahi baduzu, baina ez ote da horixe adimena, inteligentzia? Zer da, bada, inteligentea, biziak dakartzkion egoerak modu egokitu batean konpontzen dituen baina? Ez litza-

teke definizio kamutsa, ezta?... Geurez, garuna aurreikuspenak egiteko makina handi bat da. Aurreikuspenak egiten ditu, epe luze nahiz laburrean. Udako oporrak non igaroko dituzun aurreikus dezakezu, eta baita hurrengo urtean non izango zaren ere. Are, zure bizitzan zer egin nahi duzun ere asma zenezake. Geure burua etorkizunera proiektatzeko gai gara, eta hainbat etorkizun birtual proiektatu ezinik ere ez dugu. Eta, zinez, ez dago beste espezie bat horrelakorik egin dezakeenik.

### Erabakiak hartzeko gaitasunaren inguruan, zergatik dira pertsona batzuk besteak baino trebeagoak erabakiak zuzen –erabaki zuzenagoak, menturaz–, hartzen?

Ez duzu galdera makala... Aztertu dugun gaietarik bat duzu: erabakiak hartzeko prozesuak. 1868an bertan, kasu bat dugu aztergai. Gizonezko bat zen, guztiz normala, arduratsua eta hau eta hura. Istripua izan zuen, nonbait, eta burdin haga batek gure kortex hau zeharkatu zion. Handik goiti, hala aiurria nola nortasuna, biak aldatu zitzaizkion. Izan ere, lobulu prefrontalak horixe du: geure izaera zehazten du. Hura kaltetuz gero, izaera –nortasuna–, aldatzea da ohikoena. Gaixo hura deshinhizioak hartu zuen, umetu egin zen, zirtolari... eta erabakiak oker hartzen hasi zen. Erabakiak hartzeak, berez, esan nahi du ondorioak aurreikustea eta haien araberrak erabaki egokituak hartzea.

### Nola egiten du hori garunak, ordea?

Egoera bat konpontzeko daudekeen aukerak erakusten dizkigu garunak... Eman dezagun autoa erosi nahi dugula. Eman dezagun garunak hainbat aukera aztertu eta, hondarreko, hiru ibilgailu jotzen dituela begiz, gainerakoak bazter utzirik. Garunak hiru aukera horien artean erabakiak hartu behar eta, orduan, lobulu prefrontalean bertan, arrazona-

## PLAZER ETA DESIO, PUBLIZITATEA

Estetikarekin jokatzeko dute iragarkiek, eta, bereziki, plazera eragiten duten estimuluek baliatzen dira. Garunean oinarritako zirkuitu batzuk badira –kortex prefrontalera ere proiektatzen dira horiek– plazera eragiten dutenak. Plazera eragitearekin batera, atsegin horrekin batera datorren beste mekanismo bat ere aktibatzen dute: desioa. Zerbaitek plazera eragiten digularik, desioa sorrarazten dugu; plazera hura asetzeko, hain zuzen. Publizitateak plazera sententzioak aktibatzen dizkigu, aldi berean guk desio sistema aktibatzen, publizitatearen helburu den objektu edo dena delakoaren bila eman ditzagun urratsak, helburu hori lortzeko bidean jar gaitetzen eta gure jokabidea helburu hartarantz abiaraz dezagun. Finean, publizitatea egiten dutenek badakite plazera ematen digunak desioa ere piztuko digula... Egunero aplikatzen digute mekanismoa: plazeren eta desioaren zirkuituak dituzu.

menu purutik emozioen alderdira jotzen du burmuinak. Han, hiru ibilgai-letan bakoitzari emozio bat erantsiko dio. Emoziorik handiena eragiten duen autoa aukeratuko du garunak. Horixe da gure ikerketaren ekarpena, hots, gizakia ez dela izaki arrazional purua, hala uste badugu ere. Aldiz, hartzen ditugun erabaki guztiak prozesu arrazionalen eta emozionalen arteko konbinazioa dira. Ez dago gizakia konprenitzerik, ez badugu arrazoia emozioarekin batera integratzen. Banaezinak dira. Arrazoia eta emozioa gutziz loturik datoz gizakiaren baitan, erabakiak hartzeko garaian.

**Nafarroako Ospitale Guneko Birgaitze Neurologikoko atalean ari zara lanean, eta Argibide Fundazioan. Birgaitzeak aurretiko lesioa esan nahi du...**

Bai, garuneko lesioa duten gaixoei egiten dugu lan. Eman dezagun, trafikoa istripua izan duen gaztea, garuna kaltetzen duena. Gu lesioak zertan diren eta garuneko zein funtzio kaltetu duten zehazten saiatzen gara, ondoren kalteak sendabidean jartzeko ahaleginak egiteko. Garuneko lesioak gauza askoren ondorio dira: batean, traumatismo kraneo-enzefalikoa; bestean, hiktusa; miokardio infartua; garuneko tumoreak; demenziak... Neuropsikologiak, ordea, besterik ere aztertu du, eta dio, estu harturik, literalki, ez dagoela gaixotasun mentalik, gaixotasun mentalak garunaren arazoaren ondorio direla. Gizakiaren jokabide arazoek garuneari dute jatorria. Oinarri fisikoa dute. Arazo mentalak gertatzen direlarik, badakigu garuneko zein atal dauden kalteturik, zein zirkuitu eta zein zonalde, eta zergatik agertzen diren halako eta halako seinaleak. Gaixotasun mentalak garunaren funtzionamendu arazo dira, ez besterik.

**Zergatik zaintzen dugu gure osasuna –gorputzaren osasuna, esan nahi dut, kirola eginez, erlaxazio ariketak, hau eta hura eginez–, eta ez diogu garuna-**

**ren osasun onari kasurik egiten, harik eta funtzionamendu arazoak gertatzen zaizkigun arte?**

Ez da gaizki errana. Finean, ongi zahartzekotan, garunak zer egin behar duen ari zara galdetzen... Ongi eta osasuntsu zahartzeko zer egin, alegia. Jendeak jakin beharko luke jaiotze beretik, hil arte, egunero-egunero 40.000 neurona berri sortzen direla gure garuneari.

**Hil artean?**

Bai, hil artean, 40.000 neurona berri egunero-egunero! Ez gara galduak! Kar, kar, kar... Kontua da zertan erabiltzen ditugun, hau da, neurona horiek gure garuneari jaiotze eta galdezka hasten zaizkigula: “Zer egin behar dugu orain?”. Norberak zer egiten duen, huraxe egingo dute neuronek. Eta zer egin behar dute, garuna osasuntsu hel dadin zahartzarora? Kasu bat kontatuko dizut. Minnesotako moja batzuei egindako azterketa da. 90 urtetik gora bizi dira, eta haietarik inor ez da demenziatzen. Ikerlarien ondorioa, hauxe: demenziarik ez izateko, nahitaezko dela arrisku kardiobaskularreko faktorerik ez izatea –diabetesa, kolesterola, hipertentsioa–, ezinbestekoa dugula ariketa fisiko aerobikoa egitea –oinetz ibiltzea, igeri egitea, bizikleta...–, estimulazio kognitiboa lantzea dagokigula –irakurtzea, idaztea–, eta lagunarteko harremanak izan behar ditugula.

**Hor dabil jendea sudokuak, *brain training* jokoak eta gisakoak egiten, garuna estimulatzeko ari direlakoan...**

Baina ez dago frogaturik horiek garunaren osasun onari laguntzen diotenik. Are gehiago, garunaren sasoi ona helburu dugularik, askoz eraginkorrago duzu oinez ibiltzea –berrogeita bosna minutu goizez eta arratsaldean–, sudokuak egitea baino. Hori bai, frogatua duzu. Bestalde, frogatua da osasun ona izaneko badu, garun bateko beste garun batzuekin elkar eraginean behar duela izan. Garunak,

bakarrik badago, neuronak galtzen ditu. Bakardadeak garuna eskasten du, eta arinago zaharrarazten du. Osasuntsu zahartzekotan, gizakiaren garunak nahitaezko beste gizaki batzuen garunekin harremanak izatea. Bakardadeak gizakia alferrik galtzen du, eta, era berean, haren garuna. ■


## GARUN KALTETUA, IDENTITATE KALTETUA

Neska zen, eta moja. Pertsona jatorra, eta sinestuna. Auto-istripua izan zuen eta min hartu zuen begien orbitaren zonaldean. Handik goitik, zinez aldatu zen haren jokabidea. Funtzionamendu arazo franko izan zuen: droga kontsumoa, sexu promiskuitatea, gurasoak jotzen hasi zen, psikologoa mailuka hiltzen saiatu zen... Orbita inguru hori kaltetzen duten gaixoen arazoak zein da? Batere enpatiarik ez dutela, instinturik oinarritzkoenak gidatzen dutela haien jokabidea, beharrezko premiazkoenak asebetetzea besterik ez dutela gogoan. Hartutako psikopatiak dira, pertsona horiek ez dira psikopata jaiotak. Lesioak egin ditu psikopata. Garuneko lesioak haien identitatea aldarazi du.

Hitz gezidunak

	Beraz	Aulkiak	Nahia	Ikasketa	●
	Ahamenak	Erro., ekarri	Salvador ..., artista	Ez eme	
	Detekta gailuak				
	* DEITURA				
* IZENA	Partituren euskarria		Begira		
Etxea	I. sakramentua		Nafarroako urtegia		
		Nori atzikia	Eguzki		
		Atomo kargadun	Labore hautsa		
Eraso azkarra			Diruzko zigor		
Guraso arra		Bizkaieraz, arana	Gabarra txikiak		
		Jainko egiptorra			
Bizkaieraz, berri			51	Kontso. bustia	
Bakoitzak sei			Barioa	Gelaren erdian	
		Banu			
		1000			
Gauerokoa		Pl., zuhaitz mota			

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Abeletxeak, kortak.
2. Jazarpena.
3. Arrantzarako tresna.
4. Lapurdi Garaiko udalerria.
5. Sartu aditzaren infinitiboa.
6. Soldata, ordainsari.
7. Askotan, maiz.
8. Zuiako auzoa, Gorbeia inguruan.
9. Ugaztun mota.

SOLUZIOAK

	I	K							
	G	U	A	R	A	S	O	I	N
	K	A	D	A	R	I	E	K	I
	H	O	R	A	T	R	I	A	Z
	M	A	I	Z	O	K	A	R	A
		M	A	B	A	R	R	I	L
		H	A	R	A	Z	I	O	N
			A	T	A	B	A	R	R
				S	E	I	N	A	L

Hitz gezidunak

1. Saroeak.
2. Erasoa.
3. Sarea.
4. Sara.
5. Sar.
6. Sari.
7. Sarri.
8. Sarria.
9. Sarrioa.

Goitik behera

Jardunaldiak

# ENPLEGU PUBLIKOAREN EREDU BATERANTZ

2012ko irailaren 18a eta 19a

EUSKALDUNA JAUREGIA  
Abandoibarra hiribidea, 4  
BILBAO



**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,  
idatzi helbide honetara:

**IVAP**

Donostia-San Sebastián 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
[administrazioeuskaraz@ivap.es](mailto:administrazioeuskaraz@ivap.es)

Abizenak

Izena

NAN/IFZ

ENA

Helbidea

Posta-kodea

HerriaP

robintzia

Mugikorrae

-posta

**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Susana SERRANO-GAZTELUURRUTIA

**EL CONCIERTO  
ECONÓMICO VASCO  
ANTE EL JUEZ COMUNITARIO**



**IVAP**  
HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

Jone MARTÍNEZ PALACIOS

**SOZIO- INGURUMEN  
GATAZKAK ETA  
SOZIO- INGURUMEN  
DEMOKRAZIA**



**Liburu hauek hemen  
dituzu salgai:**

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

**Unibertsitateko etorbidea z/g**

**20600 Oñati**

**Tel.: 943 782 000**

**Faxa: 943 783 177**

**[argitalpenak-ivap@ivap.es](mailto:argitalpenak-ivap@ivap.es)**